




Gurutze Irizar: Fatimetu

Iñaki
Dubreuilen
aurkako
atentatua

Lazkaoko
industria
lurra

Itsasondoko
mountain
bike proba



VAC
VAC



BERTAN S.L.
EGUR BILTEGIA

VACSOL - WR[®] TRATAMENDUA EGURRARENTZAT



OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

Ibai-Ondo industrialdea, 5 pab. 18 area

ITSASONDO

PITZADURA,
PIPI eta
HEZETASUNAREN
AURKAKO
TRATAMENDU
FIDAGARRIA

Tel. /Faxa: 943 163 102

SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 8etatik 11etara
Igandeetan itxita
Eguerdietan enkarguz

☎ **943 65 28 37**

IKAZTEGIETA

KORTA

☎ **943 88 71 86**

GABIRIA

OTATZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, asteazkena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-
kita (asteazkena zehar eguerditan enkarguz)

☎ **943 80 17 57**

ZERAIN



aulia

**TOLARE
SAGARDOTEGIA**

☎ **943 80 60 66**

LEGORRETA

Olagi



Urte guztian zehar zabalik

☎ **943 88 77 26**

ALTZAGA

AMEB



Sagardotegia

SAGARDOA
TXOTXETIK

ASTELEHEN
GAUETAN
ITXITA

☎ **943 16 25 23**

Zubierreka, 9
LAZKAO

ZALBIDE

**TOLARE
SAGARDOTEGIA**

Astegunetan 19:00etatik aurrera
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean

☎ **943 65 21 76**

ABALTZISKETA



TXIMIETA

Sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ **943 88 11 28**

ORDIZIA

URBITARTE

TOLARE

SAGARDOTEGIA



☎ **943 18 01 19**

ATAUN



ETXE-ZVRI

SAGARDOTEGIA

☎ **943 88 20 49**

OLABERRIA

Non zer

8 TXANDAKA: Joxe Mari Ormazabal

9: Lazkao Industria Lurra

10-11: Fatimetu dokumentala

12-22 KRONIKAK

OLABERRIA 12: Kultur astearen amaiera.

ZERAIN 12: Bolatako emaitzak. **LAZKAO 13:** Felix Urkola alkatea.

IDIAZABAL 14: Mendi Elkartea indartzeko ekimenak. **GABIRIA 15:** Osinalde Bertso sariketa.

BEASAIN 16: Loinatzak prestatzen. **ZALDIBIA 17:** Zaharra eta Pototo gogoan. **MUTILOA 17:** Mus txapelketak.

ORMAIZTEGI 18: Ibilaldi neurtua.

ORDIZIA 19: Korrikako ekitaldiak. **ZEGAMA 20:** Euro txanponaren kanpaina. **ATAUN 21:**

Dioni Galparsoro. **SEGURA 22:** Martin Alustiza finalean.

23: KIROLA: Mountain bike proba Itsasondon.

25: DEBALDEKO IRAGARKIAK

26-27: AGENDA

28-29: ZAHARRAK BERRI:

Elektrizitateak sor ditzaketen arazoentzat gomendioak.

30: FOTO ZAHARRA: beasainarrak



Kofradia gastronomikoen bilkura Beasainen

Asteburu honetan, martxoaren 9tik 11ra, Kofradia Gastronomikoen Federazioak (FECOGA), Beasainen izango du zita. Beasaingo Odolkiaren Kofradia izango da antolatzaile eta mugaz bi aldeetako 80 bat kofradia ezberdin bil-tzea aurreikusten da.

Martxoaren 9an, sukaldari gazteen lehiaketa izango da Castillo hotelean. Hiru plater ezberdin prestatu beharko dituzte eta horietako baten oinarria odolkia izango da. Kofradien federaziokoek egingo dituzte epaile lanak. Ondoren, herri afarian beste guztiek izango dute jakiak dastatzeko aukera.

Martxoaren 10ean, bi ekitaldi nagusi izango dira. Batetik, goizean, 10ak aldean hasita, Loinazko San Martin plazan, kofradia bakoitzak bere produktua erakutsiko du: gazta, odolkiak,

babarrunak... Arratsaldean, Goierriko eta Beasaingo elkarleen arteko sukaldaritza lehiaketa izango da Bareak elkartean. Bi plater prestatu beharko dituzte eta baten osagarria odolkia izan beharko da.

Omenaldia, Irizar eta Aranbururi

Igandean, martxoaren 11n azkenik, kofradien desfilea izango da herriko kaleetan zehar, udaletxeraino, txistularien eta musika bandaren laguntzarekin. Bertan ospatuko dute urteko kapitulua. Tarteetan, bi beasaindar omenduko dituzte. Odolkiak egin izan dituzten bi beasaindar: Modesto Irizar eta Pako Aranburu.

Asteburuko jardunarekin amaitzeko, Castillo hotelean egingo dute bazkaria.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aimar Maiz, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Mari Flor Mendizabal, Iñaki Ugalde, Joxe Mari Ormazabal eta Josetxo Zufiaurre

Azaleko argazkia: Gurutze Irizar

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
Tirada: 8.000 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76
GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



*Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria*

Martuteneko atentatuan Igor Larrea legorretarra ere larriki zauritu zen

Iñaki Dubreuil, Ordiziako PSE-EEko zinegotziaren aurkako atentatua Martutenean

Otsailaren 22an, Iñaki Dubreuilen aurkako atentatua izan zen Martutenean. Ordiziako PSE-EEko zinegotzia da Dubreuil. Larri zauritu zen ordiziarra. Atentatuan, Elektra lantegiko bi langile hil eta beste bi larriki zauritu ziren, tartean, Igor Larrea legorretarra. Gaitzespen adierazpen ugari eta konzentrazio ugari egin zen ondoko egunetan, atentatua salatzeko.

Goizeko zortziak jotzean zeudela Martuteneko Renferen tren geltokiaren parean jarrita zegoen bonba autoak eztanda egin zuen. Iñaki Dubreuilen aurkako eraso zen. Martutenean Sartu enpresan, langabeentzako irakasle gisa egiten du lan ordiziarrek. Iñaki Dubreuilak bigarren mailako erredurak eta metrailak eragindako zauri ugari ditu. Kirujia gelan sartu zuten. Datozen egunetan alta ematekoak dira zinegotzi sozialistari.

Lehergailuak eztanda egin eta bere telefono mugikorretik emazteari dei egin zion bera onik zegoela esateko. Dubreuil trenetaz joaten zen



Iñaki Dubreuil.

Martutenera eta bizkarzainak gomendatuta, egunero aldatzen zuen lanera joateko ibilbidea. Duela pare bat hilabete jarri zioten bizkarzaina ordiziarri.

43 urte ditu Iñaki Dubreuilak eta irakaslea da bera. 1999an, Jose Manuel Ros zinegotzia ordezkatu zuen Ordiziako udaletxean, honi ere lehergailua jarri baitzioten bere etxeko atean.

Igor Larrea larri

Eztandak dena den, bete-betean, Elektrako lau langile harrapatu zituen. Bi langile bertan hil ziren eta beste bi oso larri eraman zituzten erietxera. Oraindik ere bertan daude.

Zaurituetako bat, Igor Larrea legorretarra izan zen. 28 urte ditu. Hirugarren gradu-



Ordizian otsailaren 23an egindako bilkura itxila.

ko erredurak ditu, hainbat hezur hautsita, eta birrikak kaltetuta. Piskanaka-piskanaka hobera egiten ari da legorretarra.

Gaitzespenak

Egun berean, arratsaldean, ezohiko batzarra egin zuen Ordiziako Udalak. EAJ, EA eta EBk atentatuaren aurkako gaitzespen mozioa onartu zuten. PSE-EEK bigarren zinegotziak kargua utzi du eta ez zen zinegotzi sozialistarik izan batzarrean. Alejandra Iturrioz alkateak adierazi zuenez, Dubreuilen aurkako atentatuarekin "guztioak erasotu gaituzte. Askatasuna eta eskubideak defenditzea denon ardua dela jabetu behar gara". Batzarraren amaie-

ran, 'Bakea behar dugu' lelopean, 15 minutuko bilkura ixila egin zen plazan.

Ordiziako EHk atentatua "zinez deitoratu" zuen atentatuaren ondorioz izan ziren heriotzak "guztiz samingariak egiten direlako".

Hurrengo egunean, otsailaren 23an, eguerdiko 12etan, ordu laurdeneko bilkurak izan ziren udaletxe aurrean.

Iñaki Dubreuil, Ordiziako Urdaneta eskolako bi ikasleren aita da eta bertako Eskola-kontseiluak zera adierazi du: "aipaturiko atentatuaren aurrean bere erabateko gaitzespena eta biktima eta hauen familiekiko elkartasuna".

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*

Guztiak libre daude eta muntai poliziala salatu dute

14 atxilotu Ordizian

Otsailaren 22an, Urko Buldain, Jorge Garcia, Aitor Txoperena, Gotzon Izquierdo, Jose Luis Casero, Eñaut Beramendi, Erri Gonzalez, Eneko Gonzalez, Aitor Urreta, Thormund 'norbegiarra', David Bruno, Iban Fernandez, Aitor Iraola eta Aitor Ezenarro ordiziarrak atxilotu zituen Ordizian Ertzaintzak. Guztiak ere libre gelditu ziren.

Martxoaren lehen prentsaurrean azaldu ziren atxilotuak eta hauen sendiarteak (argazkian), muntaia poliziala salatzeke. Atxilotuek "Gaztetxeetako mugimenduak kriminalizatzeko, jasaten ari diren errepresio eta jazarpen poliziala salatzen dute, eta bereziki, lehenagotik Ordiziakoaren aurka abian jarri den kanpaina", Aldi berean, "Ertzaintzak beraienganako eta senitartekoenganako izan duten tratua iraingarria ere, eta bereziki komunikabideen mani-



pulazioa" salatu dute "ETA-ko kide izatea, subfusilez, pistolez eta granadez osaturiko armategi baten jabe izatea eta zenbait atentatutan parte hartzea leporatu baidete".

Atxilotuek eta sendiarte-koek adierazi zuten, "gazte hauek egin duten 'delitu' bakarra, otsailaren 22an Gaztetxera afaltzera joan izanarena da".

Ertzaintzak Oiartzungo

komisaldegian agiri bat sinatzeko eman ziren atxilotuek adierazi dutenez, "sinatuz gero, beraien eskubideei uko egin eta 'terrorismoarekin' zerikusia zutela onartzen zuten".

Atxilotuek argitu zuten, Ordiziako Gaztetxean afaltzen ari ziren atxilotetako izan ziren unean, eta ertzainek, "momentu ezegokian toki okerrean zeudela" esan omen zien.

Aloña Muñoaren bila

Otsailaren 23an, goizaldean, Ertzaintza Segurako Aloña Muñoa atxilotzera joan zen. Etxean ez zegoen Muñoa. Ordu luzeetako miaketak egin zituzten bere etxean.

ETAko Donostia komandoko Ttoto taldearekin zerikusia duelakoan joan ziren Muñoaren bila, Javier Balza Herrizaingo sailburuak adierazi zuenez. Ordu batzuk lehenago, Ordizian, Iñigo Guridi ustezko ETAko kidea atxilotu zuen Ertzaintzak.

Goierri izandako azken polizia operazioak salatzeke, Seguran manifestazioa egin zen martxoaren 4an.

Mikel Zumarraga kalean

Martxoaren 2an libre gelditu zen Mikel Zumarraga ormaiztegiarra, zigorraren 3/4a beteta.

Goierriko 6 gazteren epaiketaren aurka Atxekimendu ugari

Goierriko 6 gazteen aurkako eskakizun fiskalaren ingurua prentsaurrea eman zuten Ordizian, otsailaren 23an.

1998an atxilotu zituzten 6 gazteak. 5 egun inkomunikaturik eman zituzten eta "autointulpazioa lortzea helburu duten torturak jasan zituzten. Konfidantzazko defentsa eskubiderik gabe utzi zituzten Madrilgo Entzutegi Nazionalaren esku", esan zuten prentsaurrean. Auziperatu gehienak adin txikikoak ziren. 4 hilabete egin zituzten kartzelan. Orain fiskalak 128 urteko kartzela zigorra eskatu du 6 gazteentzat.

Egoera hau salatzeke, atxekimenduak bildu dituzte Ordizian, Seguran eta Zaldibian. Zerrenda hau da: Ordizian, Argi Berri elkarte, Irriki elkarte, Bertso elkarte, Jakintza dantza taldeko dantzariak, Goierriko Gazte Asanbladak, Goierriko Ezker Abertzalea, Komite Internazionalista, Askapena, Josu Aierbe pilotaria, Ordiziako EB, Manolo Perez de Arenaza Mendizale elkarte lehenakaria, Goierri, Zumarraga eta Urretxuko AEK-ko irakasleak, Goierritarrako langileak, Jakintza Ikastolako irakasle-ikasle talde bat,



Goierri Lanbide hezkuntzako irakasle eta ikasle talde bat, Amalur Cuesta abokatua, Manolo Otegi abokatua eta Agustin Linazasoro psikologoa. Seguran, Elorri Klutur Elkarte, Enekoitz Telleria kazetaria, Txirrindu elkarte, Txontegi elkarte, Joxe Mari Telleria margolaria, EH, Haila, Gazte Asanblada eta

Erosle; Zaldibian, Zubi Buru elkarte, Almitze sega elkarte, Zaldibiko futbito taldea, Gazte Taldea, Gaztelu elkarte, Udala, Osinberde elkarte, Patxi Iraola bertsolaria, Altzo-Txiki bertsolaria, Damielak eta Beloki panderojolea.

Txekin programaren bigarren fasea

Gipuzkoako Foru Aldundiak enpresa berriak sortzeko Txekin programaren 2. fasea jarri du martxan. Enpresa bat sortzeko ideia duen edonork eska ditzake. Laguntza hauek bi motatakoak izango lirateke

1.- Oinarrizko zerbitzuak: Bideragarritasun plana egitean zehazten da batez ere. Enpresa bat martxan jartzeko beharrezko diren zerbitzuak (diru-laguntzak, merkatuaren azterketa...)

2.- Zerbitzu osagarriak: Kontabilitate alorrean, alor fiskalean, publizitate mailan, aholkularitza juridikoa eta beharrezko diren beste hainbat zerbitzu eskaintzen dira.

Lehenengorako 25 taloi jartzen ditu Foru Aldundiak promotorearen eskutan, eta hiruhilabeteko epean aurkeztu behar du bideragarritasun plana. Zerbitzu osagarrietarako berriz 50 taloi bitarte erabiltzea posible da, 9 hilabeteko epea dagoelarik enpresa sortu den momentutik.

Foru aldundiak 2. fase honetarako 128 miloi aurreikusitu ditu bere aurrekontuetan. Epea berriz, azaroaren 20 bitartean zabalik dago eskariak egiteko.

Goierrin Beasaingo Gertu Aholkulatzaritza eta Goiakira jo daiteke programa honetan parte hartzeko. Gertu aholkularitzaren kasuan, lehenengo fasean, 4 eskari izan zituen. Proiektu gehienak zerbitzuen alorrean izan dira, eta 4 proiektu hauetatik 2 dagoeneko martxan jartzeko puntuan daude.



Pello Gibelalde Realeko lehendakarigai

Martxoaren 2an Pello Gibelalde bere hautagaitza aurkeztu zuen Realeko lehendakaritzarako. Beasaingo Futbol taldeko lehendakaria da beasaindarra. Luis Arkonada Realeko atezain ohia- ren babesa omen du Gibelalde. Iñaki Alkorta, Luis

Kirolak

Ansoalde, Xabier Mitxelena, Antxon Perez de Calleja, Serafin Oroz, Rickardo Arraiz, Genaro Zelaieta, Iñaki Hernaez, Jose Luis Arriola beasaindarra, Mirentxu Etxeberria eta Xabier Zabaletak osatzen du Gibelaladeren taldea.

Gabiriako rallysprinta

Martxoaren 4an Gabirian jokatu zen rallysprinta Jon Agirrek irabazi zuen. Gabiriako kronikan 15. orrialdean informazio gehiago.

Dioni Galparsoro

Ataundar txirrindulariak asteburu berean afizionatu mailako 2 lasterketa irabazi ditu.

Iker Sukia

Ataungo pisu jaurtitzailea lesio dorsal larria dela eta jokatu ezinik dago. Bi orno edo bertebra zanpatuta ditu, sendabiderik ez duen lesioa. Bere kirol ibilbidea jarraitzeko modua, entrenamendu motak aldatu eta bizkarra indartzeko garaian bizkar hezurra gutxiago behartzea da. Aurtengo denboraldia entrenamenduak aldatu eta trantsizioa izango du Ikerrek.

Martin Alustiza

Eskuz binakako finalerako txartela lortu du Martin Alustiza segurarrak. Martxoaren 11n Donostiako Atano III pilotalekuan izango du bere bigarren txapela lortzeko aukera. Ikus Segurako kronika.

Igartza IV. literatur sorkuntza beka idazle gazteentzat

Diru gehiago jarri dute Beasaingo Udalak, CAFek eta Elkarlanean argitaletxeak IV. Igartza literatur sorkuntza bekarako. Antolatzaileek 1.000.000 pezeta jarri dute proiektu edo lagin onenarentzat.

Idazle berrientzako beka da Igartza sariketa. 35 urtetik beherakoek har dezakete parte eta aurretik lan argitaraturik izatekotan, bakarka bi liburu baino gehiago argitaratuak ez izatea.

Deialdi honetara, narratibazko lanak (eleberri edo ipuin bildumak) egiteko proiektuak aurkez litezke, jatorrizkoak eta euskaraz sortuak, beren zatiren bat edota

osotasuna inon argitaratu gabea dutenak, sarituak ez direnak eta beste inondik moldatuak ez direnak.

Partehartaile bakoitzak, hiru aldakitan eta bere benetako izena agerian jarri gabe, ondorengo agiriak aurkeztu behar ditu bere proiektuarekin batera: a) landu nahi duen kontakizunaren azalpena 2-4 orri bitarteko luzerakoa, egoiki iritzitako ezaugarriak zehaztuz, hala nola, argumetua, egitura, luzera, estiloa, etab. b) Idazlanaren lagina edo erakusgarria, 15-20 orrialde bitartekoa, ez nahitaez kontakizunaren hasierakoa, baina bai zati bakarra osatzen duena. c) gutunazal

itxia, kanpoko aldean idazlanaren izenburua izango duena eta barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta nortasun agiriaren fotokopia.

Proiektuak 2001eko ekainaren 30era arte bidali litezke, Beasaingo Udaletxeko Euskaraz Zerbitzura.

Julen Gabiriak, Jasone Osorok eta Xabier Mendiguren Elizegik osatuko dute epaimahaia eta irailaren 7a baino lehen izendatuko dute irabazlea. Saririk eman gabe gelditu daiteke.

Bekako diru-kopuruaren erdia, izendatu bezain laster, jasoko du irabazleak, eta beste erdia, idazlan amaitua entregatu eta epaimahaikoek onespina emandakoan, lehen erdia jasotzen duenetik urtebetera hain zuzen.

Goierritarrak Kultur Elkarteko Zuzendaritza batzordearen oharra

195. alean argitaraturiko Ataungo udalaren gutunean GOIERRITARRA aldizkariari egindako kritikak onartu egiten ditu GOIERRITARRA aldizkariak. Gure aldetik izandako nahi-gabeko arreta hutsegitea izan delako auziaren arrazoi bakarra. Beraz, dagokionari edo dagokienei barkamena eskatu nahi diegu lerro hauetatik.

Bide batez, Goierritarrak Kultur Elkarteko Zuzendaritza batzordeak zera adierazi nahi du:

1.- GOIERRITARRA aldizkaria, goierritar guztion, zerbitzura dagoen proiektua da.

2.- Eskualdeko informazioa zabalduz, euskaraz irakurtzeko ohitura sortzea izan da GOIERRITARRA aldizkariaren helburua. Aldi berean, Goierri eskualdearen izaera sendotzen ere lagundu du eta laguntzen ari da.

3.- 11 urte beteak ditu GOIERRITARRA aldizkariak eta herri aldizkarietan tirada handienekoa da GOIERRITARRA: 8.000 ale. Guztion artean lortutako marka da hori. Batzuk, edukiz lagundu dute, beste batzuk diruz. Guztiok behar zaituzte GOIERRITARRAK, orain arte bezala, aurrera egiteko.

4.- Guztiok zaudete beraz, GOIERRITARRA aldizkarian idaztera edo proposamenak egitera gonbidatuak.

4.- Eskutitzen atala izan da eta izaten ari da arazorik gehien sortarazten duen atala. Eskutitzen saila adierazpen askatasunaren txokoa izan da, da eta izango da.

5.- Arazoak konpontzearen eta arazo gehiagorik sor ez dadin, Goierritarra Kultur Elkarteko Zuzendaritza batzordeak honako baldintza berri hauek jartzeko erabakia hartu du.

● Gutun bakoitzaren gehienezko luzera, makinazko 30 lerro izatea. Laburtu behar izanez gero, Zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea.

● Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko da.

● Mehatxu eta irainik duen gutunik ez da kaleratuko.

Ohar honekin amaitzeko, azkenik, zera argitu nahi dugu. Ataungo Udalak, "...Goierritarra Goierriko Udalek, Ataungo barne, diruz lagundutako aldizkari bat dela kontuan izaten badugu" zioen eskutitzean. Hori egia da noski, eta behar-beharrezkoa. Baina zenbait irakurlek besterik pentsatzen badu ere, ez da udalen laguntzekin bakarrik kaleratzen. 2000. urtean Ataungo Udalak, adibidez, 155.600 pezeta eman zituen. Goierriko 19 udalen artean 4.071.075 pezeta eman zituzten, GOIERRITARRAren 21.468.045 pezetako aurrekontuaren % 18,96. Ataungo Udalak emandako dirulaguntzarekin, adibidez, Atauna, urtean, gehienez 3 aldizkari bidaliko genituzke. Baina, guk 20 edo 21 bidaltzen ditugu. Guztira 376 etxeetara iristen da hamabostero GOIERRITARRA aldizkaria. 1316 ataundarrek irakurtzen dutela esan genezake, aldizkari bakoitza 3,5 pertsonak irakurtzen duela kontuan izanik.

GOIERRITARRA aldizkariaren kaleratzea posible egiten dutenak, asko dira, eta guztion laguntza behar-beharrezkoa da. Beraz, bide batez, eskerrik asko, era batera edo bestera, GOIERRITARRA aldizkaria laguntzen duzuen guztioi.

Hi zorionak!

Bai motel bai, zorionak, otsailaren 22an, Gaztetxean opa genizun bezala zure urtebetetzeko afarian. Baina batez ere zorionak ez zenuelako jasan behar izan guri polizia gorriek egin zigutena. Oraindik lege antiterroristaren inkomunikazioaren eraginak jasaten ari gara. Paranoia, beldurra, beste batzuk nerbioak jota edo dardaraz polizia gorriak ikusterakoan. Eta ez da gutxiagorako hauek erakutsi baitziguten nola lan egiten duten, eta hori afaltzen besterik ari ez girela. Jakin bagenekien irakasle onak eduki dituztela gorritxoek. Mosad Israelita bezalakoak, palestinar preso-en tortura psikologikoan adituak. Baina ezingo zara konturatu zertaz ari garen, pertsonalki honetatik pasatu gabe.

Eta "komunikabideetaz" zer esan. Badirudi beraiek direla alderdi politikoak. Badakizu, hauteskundeetan gaude eta efikazia poliziala erakutsi beharrean daude gizarte honetan. Bost axola zaie guk eta gure ingurukoak beraien onura politikoa baldin bada. Gainera ederki aprobetxatu dute Gaztetxearekin sartzeko. Denok dakigu ez dela lehenengo aldia egiten dutela, beti eduki baitute Gaztetxea eta bertan parte hartzen dugunok jo puntuan. 1991n bezala, "inkontrolatu" batzuk Arlote Irratian 3 aldiz lapurtu zutenean eta ikusterakoan ahotsa ez zela itzaltzen, Gaztetxe osoa erre zuten. Edota polizien urteroko asaltoak inori esplika-ziorik eman gabe. Eta Ordiziako alkateak badirudi ez daukala zer esanik holako jarrera frankistaren aurrean, oraingo honetan gurekin eta Gaztetxearekin gertatu den bezala. Jakina, nola esango du ertzainak hanka sartu duela barruraino? Alejandra, he-

rriko alkateak, guri eta gure senideei zera esan zigun: "no nos podemos meter con el consejero de interior el señor Balza". Honela al da? Orduan zertarako dago, udal-etxeko buru bezala ezin baldin badu herriko eta herritar guztien interesak eta eskubideak defenditu, jakin badakitelako hau dena montai polizial mediatiko bat izan dela? Akaso soldata on bat jasotzeko?

Urko Buldain, Jorge Garcia, Aitor Txoperena, Gotzon Izquierdo, Jose Luis Casero, Eñaut Beramendi, Erri Gonzalez, Eneko Gonzalez, Aitor Urreta, Thormund 'norbegiarra', David Bruno, Iban Fernandez, Aitor Iraola eta Aitor Ezenarro

Oharra

GOIERRITARRAn badi-tugu zenbait eskutitz, izenpetu gabe jasoak. Beraz, eskutitz horiek argitaratzea nahi izanez gero, bidali zuen datuak 124 posta-kutxara.

Ari gara, baina...

Bai, ari da jendea euskara ikasten. Euskara ikasten batz bestea helduek emandako orduen kontua aterako bagenu, seguru asko, ikaskuntzan ematen duten ordu gehiena euskara ikasten ematen dela ondorioztatuko genuke.

Baina, hainbeste orduko inbertsioari –eta hainbeste dirukoari– nahi adinako etekinik ateratzen al diogu? Apenas gure inguruan ohiturarik aldatu den erabiltzen dugun hizkuntzarekiko: lehen euskaraz egiten genuenekin euskaraz jarraitzen dugu eta lehen gaztelaniaz egiten genuenekin, gaztelaniaz. Hori horrela dela datuek ere esaten dute, bestela ez zuketean erabileraren aldeko horrelako kanpainarik hasiko Eusko Jaurlaritzakoek.

Badugu, beraz, ikaskuntza hutsean oinarritutako esperientzia baten emaitza: tituludunak ugari, metahizkuntzan trebe franko (eta, bide batez, metahizkuntza garatzeko gai izan ez direnen porrota), euskaldun-euskaldunak izanik titulurik eskuratu ezinean geratutako enpresumina eta etsipena, euskaldun ez diren eta sekula izango ez diren asko titulatuak...

Hel diezaiegun, orduan, bide berri bati: ikaskuntzan ez, baizik eta erabileran oinarritutako politika bat marraz bezate ardura politikoa dutenek eta gizartearen ardura dugunok, oinezko soilok, har dezagun behingoz gure gain euskalduntzeko ardura: ez ez dakitenei ikasgaraz bakarrik, "ikasten duanean/dunanean egingo diagu/dinagu" esate hutsarekin ez dugu deusik lortuko. Lagun diezaiegun gure ingurukoei ikasten: egin dezagun euskaraz berekin. Ez jakintsuaren eta ezjakinaren arteko harreman hierarkikotik, interes bera (gure artean euskara erabiltzea) dugunon harreman hurbiletik baizik. Ez exijentziaren bidetik, merezi duela erakustetik baizik. Eta norbaitek esango dit: horrela jai zeukaagu! Eta, bestela? Orain arteko bidetik ez al daukagu jai?

Esanak esan, multzoan sartu edo multzotik ateratzeko erraztasun merke honekin jarraituz, aipa dezagun beste bat barru-barrutik. Gai honetan erdi-erdian gaudenak, honetatik bizi garenak, besteak beste, euskaltegiak gara. Orain arteko gure arrakasta ikasi izanaren arabera neurtu dugu. Gai izango al gara erabileraren arabera neurtzeko? Ez al dugu aitortu behar metodologiaz herren samar ibili garela eta gabiltzala? Ikuspegi komunikatiboaren berri aspaldi izan genuela, baina ez dugula jakin horretara hurbiltzen? Edo ez digutela utzi esan behar dugu, batzuen titulu-eskaintzaren eta besteen gosearen artean? Ez al dira berdin samarrak Nafarroako Erriberako bati eta goierritar bati eskaintzen dizkiogun ikasbideak?

Alde ederreko egoerak dira bada! Egin nahi izanez gero, lan faltarik ez dugu.



Irati
Goikoetxea

Zerk eragiten dizu negarra?

Doinua: Agur sagar beltzaran

Malkoak masailetan bihotzean mina, sentitu baitezaket nahi ta ezina, gosea, hilketak ta gailentzeko grina, trantze hau ez litzake den bezain gordina, ezberdintasunean berdinak bagina.

Benito Lertxundiren kantuzko balada, atrakzioetako plazerdun ikara tipularen eragin indartsua hara, pairamenik gabeko anpulurik bada, alaitasun malkoa negar gozoa da.



Joxe Mari
Ormazabal



Silvia Miras Casasayas
Odontologoa. 649 koleg.

Implantologia
Estetikazko odontologia
Haur odontologia
Helduen odontologia

San Ignazio, 8 B - 2. ezk.

943 88 92 87 BEASAIN

Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

Lazkaoko Industria Lurra: "eskualdeko garapen ikurra"

Otsailaren 22an inauguratu zen Lazkaoko Industria Lurra. Zubierreka Industrialdean gaur egun 26 enpresetan 442 langile ari dira lanean. Inaugurazio ekitaldi handia aurrikusia bazegoen ere, Martutenen izandako atentatua zela eta bertan behera utzi ziren ekitaldiok. Besteak beste Josu Jon Imaz kontseilaria eta Jose Ramon Beloki Diputatua etortzekoak ziren inauguraziora, baina, egun hartako gertaerek aurreikusitako ospakizuna ez egitea eragin zuten.

1992. urtean sortu zen Lazkaoko Industria Lurra S.A. Sprilur, Foru Aldundia eta Lazkaoko Udalak sustatuta. Gaur egungo kapital soziala 510 milioi pezetakoa da, ondorengo akziodunekin, Sprilurrek % 51, Foru Aldundiak % 24,4 eta Udalak % 24,5.

Sustatzaileen esanetan, Zubierreka Industrialdea Goierriko enpresa sarearen oinarritzko elementua da.

Ezaugarriak

Orokorrean 63.695 m²-ko lur azalera du Zubierreka industrialdeak. Hauetatik 44.865 eraikirik daude, 11.317 bideak dira eta 7.513 ekipamendu sozialetarakoak.

1995.eko abuztuan urbanizatzeko lanak hasi ziren. Lurra erosi eta urbanizatzeko lan hauetan 480 milioi pezetan inbertitu ziren. Bigarren fasean industrialdearen promozioari eta komertzializatzeari eman zitzaion lehentasuna. 1999 bukaeran 32.500 m²-tan 15

enpresa eta 338 langile zeuden Zubierrekan. Hirugarren fasean lurra sustatzeaz gain pabiloiak eraiki eta hauen sustapena bultzatzen da. Fase hau bukatu berria da: 12.365 m² pabiloi eraiki dira bertan 11 enpresetan 104 langile ari dira lanean. Pabiloi hauen salmenta 315 milioi pezetetan egin da.



Hotela eta jatetxea

Zubierrekako industria gunean hotel-jatetxea eraiki dute. Honen industri jarduerak sortzen duen ostatu beharrak beteko ditu. Aldi berean eskualdean dagoen eskaera turistikoari ere erantzungo dio.



Beraz, Lazkao Industria Lurrean 26 enpresa daude, 442 langileei lana emanez. Enpresa hauek sektore ezberdinetakoak dira: makina herramientako mekanizataua, industria hornigaiak, galdaragintza, beirazko estaldurak, aroztegia....

Eskualde izaera

Etorkizunerako helburu bezala Lazkaoko Industria Lurra S.A.-k eskualdeko elkarte baten sorrera bultzatuko du, Goierriin sortzen diren industria sustapen berrien garapenerako. Ekimen honetan Goierriko Udal guztiak sartuko dira. Horrela etorkizuneko ordenakuntza orekatuagoa bilatu nahi da. Felix Urkola Lazkaoko alkatearen esanetan, "Planteatzen da Lazkao eta Ordiziako industria lurrek eskualdekoak izan behar direla. Momentuan Goierriin aktuzio publikoa duten bi industria lurrak (Lazkao eta Ordizia) elkartu eta Goierri industrialdea sortuko da eta herri ezberdinetan dauden beharrei aurre egingo zaie. Hemendik aurrera aktuzio publiko horiek Goierri mailakoak izango dira eta ez da herri bakoitzean bat sortuko".



Nafarroa
Etorbidea, 9

☎ 943 88 94 82

BEASAIN



ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN



LAZKAO
GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901

Faxa: 943 888901

LAZKAO

Ormaiztegiko Gurutze Irizar erizainaren bizitza dokumentalean

'Fatimetu': Saharar herriaren historia

Jon Anduezak zuzendu eta Oria Produzioak-ek ekoiztu duen 'Fatimetu' dokumentaleko protagonista dira Gurutze Irizar ormaiztegiarra, eta bere familia. Saharar herriaren historia pantailaratu nahi izan da, sahararrek daukaten arazoa guregana gerturatuz eta sentsibilizatuz. Gurutze Irizarrekin izan gara solasean, bere senarrak, Mohamek Salem Hach Embarekek, tea prestatzen eta zerbitzatzen digun bitartean.

Gurutze Irizarrek ez zuen sekula pentsatuko bere bizitza dokumental baterako argumentua izango zenik. Duela hiru urte, ordea, Martin Ibarbia beasaindarrak, Orio Produzioako arduradunak, proposamena egin zion ormaiztegiarrari.

Hasieran ezezkoa erantzutekotan izan zen Gurutze, bere bizitza inori axola ez zaio-lakoan. Dena den, gaiari buelta eman eta sahararrei eragozten edo ukatzen zaien hitza zabaltzeko aukera ona



izango zela pentsatu zuen. "Sahararrek ez daukate aukerarik beraien hitza zabaltzeko eta dokumental honi esker Saharar herria ezagutaraztera emateko aukera daukagu", esan digu Gurutzek.

Sahararrek ere gustura jaso zuten ideia, eta lana asko

erraztu omen die. "Haiek ez daukate ezer ezkutatzeko. Alderantziz, informazioa moztu egiten zaie". Gurutzeri elkarriketa hau egin genionean, Garazi alaba kanpamentuetara joana zen eta bideo kopiak ere eraman zituen.

Lan astuna

Grabaketa lanak astun sama-

rrak izan badira ere, gustura daude guztiak lortutako emaitzarekin.

Urriaren bukaera aldean, basamortuan egin zituzten grabaketak, errefuxiatu kanpamenduetan. Goierrikoak azaroaren bukaeran grabatu zituzten. "10 lagun joan ginen eta guk bakarrik ezagutzen genuen basamortua. Ekipo teknikoak ez zekien zer aurkituko zuen. Lan asko egin genuen, 8 egun grabaketan".

Fatimetu dokumentalean, seme-alabek egiten dute kazetari lana. Garazi eta Beñatek, amari, Saharari eta bere bizitzari buruzko galderak egiten dizkie, Sahararen arazoa eta historia piskanaka tartekatuz. Seme-alaba-amaren arteko elkarriketa formula honekin, dokumental intimoagoa, goxoagoa, iza-tea lortu dute.

25 urte erreferendumaren zain

Espainiak Marokko eta Mauritaniaren esku utzi zuen Mendebaldeko Sahararen administrazio lana 1975ean. Mauritaniak laster utzi zuen Mendebaldeko Sahararen parte hartzea baina Marokok, 'Martxa berdea' izena-

"Saharar herriaz parre egiten ari direnaren sentsazioa daukate sahararrek"

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN

JAUREGI TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN

rekin, Mendebaldeko Sahara hartu zuen. 1975ean maiztzen, Nazio Batuen Erakundearen ordezkaritza joan zen Saharara eta bake plana adostu zen, besteak beste, sahararrak identifikatu eta erreferenduma egitea. "25 urte pasatu dira eta oraindik ere erreferendumaren zain daude", dio Gurutzek.

"Marokkoarrek sahararrek lehenbailehen bukatu nahi zuten", gaineratu digu ormaiztegiarrak. Gurutze 1975ean joan zen Saharara. "Oso momentu gogorrak izan ziren. Nire ordua iritsi ez zelako nago hemen". Etxean, ahizpa batek bakarrik zekien Gurutzen ibilbidetaren berri.

Bere bizitza filmeetako maitasun istorio eder horietako bat al den galdetu diogu Gurutzeri. "Ni Saharara joan nintzenean ez nintzen nire senarrarengatik joan. Asko inplikatu nintzen beraien arazoan. Gelditzerakoan eduki zuen zerikusi handiagoa, joaterakoan baino", aitortu digu.



Fatimetu

Gurutze Irizar Ormaiztegin jaio zen. Irunen barnetegian egon eta Iruñean erizain ikasketak egin zituen. Handik lehenengo Madril eta ondoren Tenerifera joan zen.

1973an ezagutu zituen sahararrak Tenerifan, tartean, Mohamed Salem Hach Embarek, geroago bere senarra izango zena. 1975ean Sahara joan zen Gurutze, Tinduferra. 1989. urterarte egon zen bertan. Sahararrek Fatimetu izena jarri zioten ormaiztegiarrari. Garazi alaba, Jadeya Saharan, Madrilan jaio zen eta oso txikia zela Saharara eraman zuten.

1989an, Beñat jaiotzeko zegoela, sahararentzat Buel-La, Ormaiztegiara itzuli zen Gurutze, Garazi alabarekin. Garazik ikasketak egitera kanpora joateko mugitu beharra zeukan 12 urterekin eta erreferenduma ere gertu ikusten zutenez, probisionalki Goierrira itzuli ziren. Probisionaltasun honek 12 urte egin ditu. Dena den, ahal duten guztietan, Tinduf aldera joaten dira.

Bi kultura hain ezberdinetan seme-alabak haztea eta hezteko zaila izan ote den galdetu diogu Gurutzeri. "Zailena seme-alabak bakarrik haztea izan da. Norberak ondo barneratuta baldin badauka, besteei transmititzea erraza izaten da".

Armak hartzeko prest

Sahararrak identifikatzeko lana eginda dago, erreferenduma noiz egingo den zain daude. "Marokkok, galdu behar duen erreferenduma egiteko asmorik ez dauka. Baina munduan inor ez egotea bake plana betearaziko duena? Saharaiarrak ixil-ixilik daude eta hor konpon. Berriz ere armak hartzeko prest daude. Haiek badakite gerra zer den, baina ixil-ixilik egonda ez du inork ere kasurik egiten. Buila ateratzea beste biderik ez dago", esan digu Gurutzek. Itxaropentsu edo etsipenak jota dauden galdetu diogu. "Gutaz parre egiten ari direnaren sentsazioarekin daude haiek".

Herrialde aberatsa

200.000 inguru saharar izanongo dira guztira. Herrialde txikia, baina lurraldez aberatsa. Itsaso aberatsa du, eta mineralen ere aberastasun handia du. Petrolio ere ba dauka. "Pobrea izango balitz aspaldiko emango liekete nahi dutena", esan digu.

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK, ATEAK eta abar

✕ ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

VOLVO



TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

YOSU THERMIK

LEIHO ISOLATZAILEAK

- PVC leihoak
- Aluminiozko hausdura termikodun leihoak
- Aroztegi mistoko leihoak
- Poliuretanozko leihoak



Erakusketa
Ipiñarrieta, 3

☎ 943 725 232 URRETXU

Fabrikatik zuzenean

Kataide industrialdea, 4 pab.

☎ 943 770 157 ARRASATE




Golden Apple Quartet, udal pilotalekuan

Kultur asteak aurrera darrai eta asteburuan izango dira ekitaldirik nagusienak. Beraz, hona hemen bukaerako ekitaldiak.

Gaur, martxoak 9, arratsaldeko 5,30etan, musika trukea izango da Kaskoko ludotekan. Gauean, 21:30ean hasita, herri afaria izango da Udal pilotalekuan. Herriko sagardoa dastatzeko aukera izango da. Giroa alaituz eta berotuz, Donato Goienetxe (perkusia) eta Edurne Iturbe (trikitia) bikotea arituko da.

Larunbatean, martxoak 10, goizeko 9,30etan, V. Joxe Kerejeta bola txapelketa hasiko da, herriko bolatokian. 11:00etan, zuhaitz eguneko



ospakizunak izango dira. Honela, San Joan zuhaitzaren ohiturak luzaro iraun dezan, makalak landatuko dira herriko plazan.

Umeentzako ekitaldiak 11:30ean hasiko dira: umeen pala erakustaldia pilotalekuan; musika, bideojokoak, internet ludotekan...

Pilota eskola

Azkeneko bi urteetan, Olaberriko jaietan Garikoitz Arrieta izan da gaztetxoentzat zuzenduriko pilota txapelketa antolatua. Gaztetxoek gogoak ikusirik, pilota eskolaren beharra zegoela ikusi zuen. Beraz, pasa den otsailaren 10ean hasiera eman zioten Gari eta bere lehengusuak Iker Arrietak. Biak Ordiziako Oiangü Pilota elkarteko eta Olaberriko herriarteko taldeko partaideak dira.

Udal pilotalekura gazte mordoak hurbildu zenez, ekin-tzak arrakasta izango duela pentsatzen dute. Hau dela eta, larunbatero 12:30ean elkartuko dira Olaberriko udal pilotalekuan, 10-16 urte bitarteko gazteei zuzenduta.

12:30ean pala erakustaldia izango da, Xabier Bera-sategi, Iker Arrieta, Gari-koitz Arrieta, Jose Manuel Garrido eta Jose Luis Saraso-laren eskutik.

Arratsalde partean, 19:00etan, talo festa izango da plazan. Eguna amaitzeko azkenik, Golde Apple Quartet musikariaren kontzertua izango da udal pilotalekuan, gaueko 10,30etan hasita.

Igandea herrialde ezberdi-netako kultura eta jakiei eskainiko zaie. 13:45ean, jaki

ezberdinak prestatuko dira eta dultzaineroek alaituko dute giroa. Arratsaldean, berri-herrialde ezberdinetako jaia izango da. Tartean, 'Al-baro', 'Os Galaitos' eta To-losako Dultzaineroak izango dira. Tartean, Goierriko ber-tso eskolako bertsolarien jar-duna izango da.

Dena den, goizean, 11:00etan hasita, haurren-tzat, patineten lasterketa izango kaskoan. 12:00etan, berri-herri, marrazki tailerra, pla-zan.

Bolatako emaitza

Endika Alustiza oroimeneko VIII. Bola txapelketan 60 bolari lehiatu ziren, goiz eta arratsaldeko giro ederrean, irabazlea Xabier Lazkano donostiarra izan zen.

Txapelketaren maila oso ona izan zen, irabazleak 37 birla botatzea lortu zuen. Ondoren sailkatutako lau bolari-ek 36 birlara berdindu zuten eta desenpatea jokatu behar izan zuten sailkpena erabaki-tzeko.

Sailkpena honela geratu

zen: 1. Xabier Lazkano; 2. Je-xux Mari Intxausti; 3. Anto-nio Agirre; 4. Antonio Miner; 5. Pedro Lazkano; 6. Luis Aizpeolea; 7. Zeferino Agirre eta 8. Antonio Alustiza.

Lehenengo zortzirentzat sariak izaten dira eta sarituen artean sailkatzea lortu zuten bi zeraindarrek, 6. lekuan Luis Aizpeolea eta 8.enean Antonio Alustiza, biak 35 birlatara parekatuak.

Mari Flor Mendizabal



Inauteriak

Herri eskolako haurrek, inaute astelehenean jarri zuten herrian inauteri giroa, beren moztar eta festekin. Eliz ataria eszena-leku bezala hartu, bertako paretak marrazkiz apaindu eta au-rreko egunetik prestatzen ari ziren antzezlanaren herriartaren au-rrean antzeztu zuten. Antzezlanaren ondoren bertara inguratu-tako ikusleak ere, asko moztarotuta, festa giroan sartu ziren eta denak elkarrekin dantzan, jolasean eta meriendatzen buka-tu zuten.

"Agauntza ibaia herriaren ardatz bihurtzea nahi genuke"

Zubierrekako industrialdearen inaugurazioa aitzakitza hartuta Felix Urkola alkatearekin izan gara herriko hainbat gaietaz hitz egiteko.

Alkateak dionez, industrialde hau duela 9-10 urte egindako apustua da, nahiz eta emaitzak orain eman dituen. "Bere garaian urrutira begira emandako aurrerapauso bat izan zen eta orain momentuak eta egoera ekonomikoak lagunduta lortu dena. Hau bai herriarentzat eta bailararentzat lanpostuak lortzeko bide egokia dela garbi geratu da". Garai hartan egindako apustua orain berritzea pentsatzen da, aurrera begira prestatzen hasteko. Lehenengo pausoak ematen ari dira industria gune berriak sortzeko.

Arau subsidiarioak

Momentu honetan Udalean duten lan garrantzitsuena arau subsidiarioen birrazterketa da. Horretan ari dira eta horrek baldintzatzen ditu aurrera eraman beharreko hainbat asmo. "Hor erabaki beharko da nolako herria nahi dugun etorkizunean. Aztertzen ari gara Agauntza



ibaiak herriarentzat eduki dezaken garrantzia. Ibaia herriaren ardatz bihurtzea nahi genuke. Herri erdian dagoen ibai zatia berritu zen eta positibotzat jotzen da bertan egindako lana. Orain herri gunetik kanpora gertatzen diren zatietan zer egin litekeen aztertzen ari gara. Beste era bateko errehabilitazioa beharko dute, baina hori aztertzeko proiektuak martxan daude", dio alkateak.

1. eta 3. sektoreak

Industriaz gain beste alorrak ere landu nahi diutze Udaltik: "Bere garaian apustu garrantzitsua egin zen industrialdea bultzatzeko, zalan-tzarik gabe bailarako sektore garrantzitsuena industria da eta hala izaten jarraituko du. Baina hor daude 3. sektorea

zerbitzu, turismo eta kultura aldetik eta 1. sektorea baserri inguru guztia ere hor dago eta sektore hauei ere heldu nahi zaie eta pausoak ematen hasi".

Jakoba Errekondo astean ordu batzuz ari da lanean batez ere baserriaren egoera aztertzen. Baserriarrak berriak ari dira horretan parte hartzen. "Azterketa prozesuan dago orain, zer dagoen eta nora joan gintezkeen ikusi beharra dago lehenik, eta piskanaka lehen pausuak ematen ere hasi beharko gara".

Lazkaok badu ondarea eta Felixen esanetan, "horri etekinik atera litekeen ikusi beharra dago. Hori bailara mailako prozesua da, turismoa bultzatzeko garaian ezin gara herri bakoitzera mugatu, azkenean Goierrri guztia ere txikia geratzen baita".

Ekain Arruabarrena mundialera

Estatu Batuetako Utah-n da Ekain Arruabarrena munduko eski txapelketak jokatzeko. Iraupeneko 5 eta 20 km.ko probetan parte hartuko du lazkaotarrak. Olinpiar jokoek utzitako zapo txarra goxatzeko aukera du Ekainek Utah aldera joanda.

Orobione

Ahal dela lehengo Orobioneren itxura eta egitura berdina eman nahi zaio, hori dela eta ekonomiko aldetik ere esfortzu garrantzitsua egiten ari dira. Funtzionalitate aldetik, 3. adineko pertsonen zuzenduta egongo da. Gaur egun palazioan dagoen egoitza Orobionera ekarriko da eta eguneko zentrua jartzeko proiektua aztertzen ari dira.

Etxebizitzak

Aspaldi honetan etxebizitza asko egin dira eta momentu honetan babes ofizialeko 16 etxebizitza eraikitzen hasita daude. Orain arteko helburua herrigunetik gora zeuden lurretan etxeak egitea zen. Hori gutxi gora behera bete da. Hemendik aurrera zer egin behar den arau subsidiarioen moldaketak aginduko du.

Lanpostu berria

35 orduko lanastea urtarrian ezarri zen Udalean eta horren ondoren lanpostu baten premia sortu da. Honek bi arlotako hutsunea beteko du, alde batetik udaltzaingoena eta bestetik brigada edo mantenimendukoa. Oinarriak argitaratuta daude eta izen emateko epea martxoaren 13an bukatzen da. Interesatuta daudenak udaletxean dituzte oinarri horiek.

Kubako bidaietan berezitasuna

Yobos

Bilbotik-Habanara
hegaldia bakarrik
88.000 pta.
(Martxoaren 9tik
martxoaren 30era)

Elosegi, 17 LAZKAO
Tel.: 943 889 291 Faxa: 943 883 971
e-posta: algoz@wanadoo.es

X A X O

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

San Inazio, 5 943 88 35 81
BEASAIN

GABINETE PSIKOLOGIKOA

ARPE

Pedro Jose Landa Gutierrez
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

- Depresioak
- Beldurrak
- Harremanetarako arazoak
- Antsiak
- Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ezk BEASAIN

Mendi Elkartea indartzeko ekimena

Idiazabalgo Mendi Elkartea, taldea indartu eta mendi irteerak sarriago antolatu nahian dabil. Azken bi urteetako "atsedenaren" ondoren, elkarteak kideek, jendea bildu eta berriro ere martxan jartzeko garaia iritsi dela iritziz diote. Taldeko ordezkarien esanetan, azkenaldian herriko gazteen artean mendirako ohitura handitzen ari da, eta horri heldu nahi diote taldea biziberritzeko.

Herritar guztiei egiten die dei Mendi Elkartek, gaur (martxoak 9) iluntzeko 8etan

Pilarreneako ganbaran egingo den bilerara. Bilkura horren helburua, "irteera berriak, ideiak, asmoak, iritziak, esperientziak, proiektuak, espedizioak....martxan jartzeko izango da" Mendi Elkartek, "X espedizioz" izenburupean herrian banatu duen oharrean irakurri daitekeenez.

Xabier Urteaga



Gaztetxea

Udalak gazteei utzitako lokala inauguratu zela hilabete bada. Inaugurazio ekitaldiko argazki da.

Korrika

Astero ari da biltzen Idiazabalgo Korrika batzordea. Oraindik zein ekitaldi egin erabat zehaztu gabe dagoen arren, martxo-ko azkeneko asteburuan egingo dira ziurrenera. Bileretan parte hartu nahi duenak, Kultur Etxean galde dezake asteroko bilera zein egunetan den.

Bidaia

65 urtez gorakoentzat Imerso-k antolatzen dituen bidaietara joan nahi duten herritarrek, martxoaren 26rako eman behar dute izena Udaletxean.

Eliza

Elizako teilatuan kaltetua zegoen habe edo biga bat aldatzeko lanetan aritu dira aurreko asteetan. Teilatuaren zati bati eusten zion habea aldatzeko, garabiaren laguntza behar izan zen.



Aratz mendira egin zuen lehendabiziko irteera Mendi Elkartek 1985eko otsailaren 24an.

Axari bertso sariketa

Martxoaren 10ean (larunbata) jokatu da Idiazabalen IV. Axari bertso sariketa. Iluntzeko 8,30etatik aurrera, Axari elkartearen izango dira: Sustrai Kolina (Urruña), Etxahun Lekue (Larrabetzu), Eneritz Azkue (Mutriku), Iñaki Apalategi (Beasain), Gorka Ostolaza (Markina-Xemein) eta Xabier Astigarraga (Mutriku).

Saioaren aurretik egingo den afarirako txartelak astean zehar egon dira salgai. Afalondoan bertsoak entzun nahi dituenarentzat ateak zabalik izango dira.

Lili
loradenda

Ezteiak, zentroak, koroak,
lore lehorrak, balkoiak....
Zaldizurreta 3 behe, Beasain 943 888149

**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. **BEASAIN**

III. Rallysprint- ean ere ikusle asko

Joan den igandean jokatu zen hirugarren aldiz Gabiriako Rallysprinta, ohi bezala Kamiño-zarrean. Eguraldiak batiere lagundu ez bazuen ere ikusle ugari bertaratu zen, denboraldiko lehen lasterketa izanik, aurtengo berrikuntzak ikusteko irrikitan. Pilotoek, ordea, ezer gutxi eskaini ahal izan zuten, errepide bustiak aurreko urtetako ikuskizuna asko murriztu baitzuten.

Arratsaldean zehar, Zuzulatik Motxorrorra bi joan-etorri egin behar izan zituzten irrendako 51 autoek. Horietatik 40k bakarrik bukatu zuten, 11

errepidetik irten eta bertan behera utzi baitzuten proba. Mitsubishiak izan dira aurtengo ekitaldian izarrak, BMWen eta Cosworth-en faltan. Ibiza Kit Car-ak eta Peugeot 205 Kit Car-ak ere ikusmin handia sortu zuten, nahiz lehenengoa aurreneko itzulian erretiratu. Kotxe txikietan, Saxo, R5, 205 eta AX batzuek ere lan polita egin zuten.

Bukaeran, denbora guztiak batuta iazko irabazle bera, Jon Agirre azpeitiarra, eta Asier Lasa gailendu ziren, eskuratu berri duten Mitsubishi



Evo VI beribilarekin. Lau mangetan eura izan ziren guztietan nagusi, denera 18 minutu eta 44 segundoko denbora eginez, bigarrenari ia minutua aterata. 87 km/h-ko

batzbestekoa lortu zuten azkenean, eta 4 minutu eta erdi pasatxo irauten zuten bide zati bakoitza betetzeko.

Aimar Maiz

Osinalde Bertso Sariketa hasi da

Bihar larunbata, martxoak 10, jarriko da abian XXX. Osinalde Bertso Sariketa. Iazko egitura berean oinarrituko da oraingo honetan ere, eta hiru kanporaketak egingo dira finalerako seikotea osatzeko, aldiko bina sailkatuz.

Biharkoan, Idiazabalgo Axari elkartean, iluntzeko 8,30etan da afaria, eta ondoren saioa. Sustrai Kolina, Etxahun Lekue, Eneritz Azkue, Iñaki Lopategi, Gorka Ostolaza eta Xabier Astigarraga ariko dira. Bigarren saioa Aztiriko elkartean izango da martxoaren 17an. Hirugarrena, berriz, Ordiziko Argi-Berrin, martxoaren 31n. Finala, Osinalde elkartean, noski, apirilaren 7an ospatuko da.

Gaztetxoentzat pilota txapelketa

Bigarren edizio hau lehengo larunbatean hasi zen, Zumarraga, Urretxu, Ormaiztegi eta Gabiriako pilotari gazteentzat izango dena, bikoteka. Martxoan zehar kanporaketak egingo dituzte, hurrena hilaren 17an, eta azkeneko partidak apirilaren 7an jokatu-ko dituzte, Kultur astearen barnean antolatuta.

Goruntz-en 30. urteurrena

Orain dantzan dabilzan taldeek saio berezia eskainiko dute urteurren hori ospatzeko. Maiatzaren 20an izango da festa. Hala ere, dantzari izandakoen, gurasoen eta herritar guztien parte hartzea ere eskatu eta eskertuko da, bukaeran dantza batzuk guztiek batera egiteko. Fandangoa, Arin-arina eta antzekoak entsaiatu nahi dituenak martxoaren 17an du aukera, arratsaldeko 5ak inguruan dantzalekura hurbilduz.

Bolak

Goierriko txapelketa otsailaren 10ean hasi zen Kortako bolatokian. Bertan Xepeño Agirre segurarra nagusitu zen (45 birla). Hirugarren jardunaldian, hilaren 24ko Gabiriako Udal Bolatokian, Juan Kruz Aranburu idiazabaldarrak irabazi zuen (46 jota), Nikolas Igartabal herritarra bigarren geratuz.

Goierriko saioak igaro ondoren, Gipuzkoako txapelketako bi jardunaldi ere jokatu-ko dira, martxoan eta apirilean.



XENKEGI
ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurrira

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113

Tel mugik.: 619 487056

Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak

BEASAIN



Loinatz jaiak zehazten doaz

Urtero bezala Loinatz Jaietako batzordea osatzeko garaia iritsi da. Inauteriak pasa berriak dira eta bi hilabete eta erdi bakarrik falta dira Loinatzak ospatzeko. Hori dela eta, jaiak antolatzen hasteko Jaietako batzordeak otsailaren 26an egin zuen lehen bilera. Aurrerantzean eta Loinatz Jaiak ospatu bitartean egingo diren bilereetan edonork parte har dezake, bai partikular, elkarte, zein laguntalde ezberdinek. Helburua jaiak ahalik eta ondoen antolatzea eta bultzatzea da.



rriz, 45 X 65 zm. edo tamaina proportzionalekoa izango da. Hori bai, lehiaketako gaia, Beasaingo Loinatz-Jaiak izango da eta lanetan, 'Beasain, 2001eko Loinatz jaiak Maiatzaren 25etik ekainaren 3ra' testua idatzirik agertu beharko da. Lanak apirilaren 6a baino lehen aurkeztu beharko dira Udaletxeko Hiritarren Harrera Bulegoan. Epaimahaiak apirilaren 20a baino lehen emango du bere erabakia. Saria 51.000 pezetakoa izango da.

Nekane Altuna

Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa

Beasaingo Udaleko Kultur Batzordeak lehiaketa antolatu du 2001ko Loinatz-Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko. Oinarriak dioenez, edozeinek har dezake parte lehiaketa honetan eta edozein kolore edo eratako lanak onartuko dira. Lanen neurriak be-

Murumendi mendiaz liburua

Tomas Salazar beasaindarrak Murumendi mendiaz liburu bat osatu berri du. Kultura Sailak ateratzen duen 'Beasain esku esku' bildumako 3. alea da eta pasa den astean egin zuten liburuen aurkezpena. Murumendi tontorretik ikus daitezkeen 100 mendi ingururen berri jasotzen da eta hauen deskribapena da Tomasen liburuen ardatza. Mendien garaierak, bertaratzeko beharrezko denborak eta distantziak bezalako azalpenak ematen ditu.

Lan hau egiteko, Murumendin kokatua dagoen mahaian oinarritu da. Aitzgorri Mendizale Elkartek, 1997. urtean jarri zuen mahai hau, Etxebarrietako Patxi Mujikaren laguntzari esker, bertatik ikus daitezkeen tontorrak eta gailurrak zeintzuk diren azalduaz. Aipaturiko mahaia berriz, Estanislao Iturrioz beasaindarrak eginiko marrazkian oinarritu zen.

Goierri-Orereta bertsolari txapelketa

Martxoaren 17an, 20:30ean hasita, Arrano Kultur Elkartean, Goierriko bertsolari gazteak Oreretako bertsolari gazteen aurka arituko dira lehian. Lehiaketa kutsua kendu nahirik, bertso afaria izango da. 1.500 pezetan daude afarirako txartelak salgai, Arrano tabernan.

Lankidetza brigada Kuban

Beasaingo Udaletxeko Gizarte Ongizate Sailetik adierazi digutenez, Euskadi - Kuba "José Martí" Elkartetik ohar bat jaso dute, jakin ezazuen aurten, uztailaren 9tik 29ra lankidetza brigada bat egongo dela Kuban. Bertan lan eginez lagundu nahi duzuenok izango duzue aukera beraz aurtengo udan.

La Habanatik Mendebaldera, 40 kilometrotara dagoen Caimiton jarriko dute "José Antonio Mella" kanpamendua. Batez ere zitriko kanpamendua izango dela adierazi dute.

18 urtetik 70 urte bitartekoak, bakarka nahiz taldeka joan ahal izango dira. 18 urtez behekoek berriz gurasoen baimena beharko dute. Bertara joan nahi dutenek lekua ziurtatzeko 15.000 pezeta ordaindu beharko dute, maiatzaren 15a baino lehen. Aurten gainera, beste urteetan baino jende gehiagorentzat egongo dela lekua adierazi dute.

Informazio gehiago nahi duzuenok, deitu telefono honetara: 944 387 429 (13:00etatik 15:00etara eta 20:00etatik 22:00etara, astelehenetik ostiralera).

Eskeletako haurrentzat antzerkia

Beasaingo eskola umeei zuzenduta, antzerki kanpaina antolatu da martxoaren 20, 21 eta 22rako. Emanaldiak Usurbe Antzokian izango dira arratsaldeko 3etan.

Martxoaren 20: Gorakada taldeak 'Aitonaren kontuak' antzeztuko du. 3-5 urte dituzten aurrei zuzendurik.

Martxoaren 21: T'Ombbligo taldeak 'Ahots gabeko aitona' lana antzeztuko du.

Martxoaren 22: Txamuskin taldeak, 'Tetro Mohicano' lana antzeztuko du. 12-16 urte bitarteko gazteentzat.

Kofradien bilkura asteburuan

Kofradia gastronomikoak Beasainen bilduko dira martxoaren 9tik 11ra, beraien kapitulua ospatzeko. Informazioaren xehetasunak 3. orrialdean dituzue.

Mus txapelketa Arranon

Bihar, martxoak 10, XI. Arrano mus txapelketa jokatu da, arratsaldeko 4,30etan hasita. 4 erregeetara jokatu da, 30 tantuko 3 usteletara. Izen ematea Arrano tabernan egin behar da arratsaldeko 3,30etan. Bikoteko 3.000 pezeta ordaindu beharko dira. Sariak: irabazlearentzat 120.000 pezeta eta txapela. Gainerako sariak, 2.enetik 4.era, 60.000 pezeta, 30.000 eta 15.000 pezeta. 5.arentzat 2 arkume, 6.arentzat markako ardo kaxa, 7.arentzat bi tarta eta 8.arentzat 2 kava botila. Herriko lehen bikotearentzat 2 txuleta.



Zaharra eta Pototo gogoan

Amnistiaren Aldeko Batzordeak honako egitaraua pres-tatu du Zaharra eta Pototoren omenez.

Martxoaren 13an, 21:00etan, 'Euskal Herriko Oinarri demokratikoak' hitzaldia, Kultur etxean. Hitzlariak: Julen Zelarain (ABBen koordinatzailea) eta Koro Egibar (18 urte kartzelan egondakoa).

Martxoaren 18an, 11:30etan, pentatloi herrikoia. 13:00etan, ekitaldi politikoa. 13:45ean, poteo herrikoia eta erreibindikatioa. 14:30ean, bazkari herrikoia. Ondoren, abestiak eta Arnaldo Otegiaren mitina.

Saunarako bonoa

Udaleko Kultur batzordeak, sauna zerbitzua hobetzeko asmotan, hamar saiorako bonoa jarri du martxan. Zerbitzu hau 1999ko maiatzean eskaini zen lehenengoz, eta honezkero 500 pezeta balio izandu du saio bakoitzak. Bono berriak 3.500 pezeta balio du eta hiru hilabeteko epean erabil daiteke.

Saunara joan nahi duenak Kultur etxera jo dezake --astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 19:30era-- edo 943 160338 telefono zenbakira deituz jaso dezake ordua.

Informatika gela

Herriko liburutegian bi ordenagailu jarri dira herritarrek erabili ahal izateko. Ordenagailu hauek CD-rooma erabiltzeko aukera ematen dute eta Acces, Power Point, Word eta Excel programak ere erabil daitezke.

Halaber, Internet-en kontsultak egin edota posta elektronikoa bidaltzeko aukera dago. Interesatuak aldeztu aurretik txanda hartu beharko du, eta libre egonez gero momentuan ere erabili dezake.

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 12:30etik 17:30era.

Tarifak: Internet zerbitzua: ordu bete 200 pezeta; ordu erdia 100 pezeta.

Inprimatzen diren orriak: orri bakoitzeko 5 pezeta; kolorezkoak 25 pezeta.



Ordenagailuetan lan egitea-gatik ez da tarifarik kobratzen.

Egonaldiak familia euskaldunetan

Aurtengoan ere, HABEK 'Egonaldiak Familia euskaldunetan' programa kaleratu du. Dakizuenek, programa honen bidez, euskara ikasten edo euskara hobetu nahian dabilenari, uda partean, euskal giroan euskaraz hitz egiteko aukera eman nahi zaio. Helburu hori lortzeko, familia euskaldunak behar dira. Familia horiek ikasle bakarra izango dute eta hilabetea edo hilabeteak aukeratu ahal izango dituzte. Hori dela eta, familiak 82.000 pezetako dirulaguntza jasoko du hileko. Interesatuak martxoaren 23a baino lehen bete beharko dute eskaera.

Informazio eta xehetasun gehiago nahi izanez gero, Kultur etxetik pasa edo 943 160338 telefono zenbakia deitu.

Bideo emanaldiak haurrentzat

Igande honetatik aurrera, haurrei zuzenduriko bideo emanaldiak eskainiko dira arratsaldeko 4,30etan Kultur etxean. Emanaldi hauek Eskolako Guraso Batzordearen eta Udalaren artean antolatu dituzte. Guztira 70 haurren gurasoek parte hartuko dute ekimen berri honetan, eta saio bakoitzeko bina guraso bertan egongo dira. Saio hauek martxoan, apirilean, azaroan eta abenduan eskainiko dira. Pelikularen izenburua ostiralean jarriko da Kultur Etxean.

Iñaki Gurrutxaga-Saroi Jauregi



Mus txapelketetako irabazleak

● Otsailaren 24an, Aitz-Buru Elkartean jokatu zen mus txapelketa eta irabazleak Jose Mari Murgiondo eta Luis Aranburu izan ziren. Bigarren berriz, Jabier Aranburu eta Juan Telleria.

● Martxoaren 3an berriz, Ostaturun jokatu zen mus txapelketa eta hemen irabazleak Milagros Aranburu eta Pedro izan ziren, bigarren Patxi Imaz eta Jose Insausti geratu zirelarik.

2001-02 urteetarako oporaldiak

Imersio antolatutako Adinekoentzako oporraldi programa zabaldu da dagoeneko. Programa honetan sartu ahal izateko bete behar diren baldintzak honako hauek dira: 65 urte beteta izatea, pentsioen sistema publikoko jubilatu izatea edo sistema publikoan sartzen diren pentsioen barruan 60 urte beteak izatea.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: NA-aren fotokopia, pentsioen agiria eta gi-

zarte segurantzako zenbakia. Izena emateko epea martxoaren 31an bukatuko da eta horretarako udaletxeko Gizarte Zerbitzu sailetik pasatu behar da, ostegunetan 12:15etik 14:00etara.

XIII. Goierriko bola txapelketa

Txapelketa honi dagokion tiraketa Mutiloan martxoaren 17an izango da. Goizean 11:00etatik 12:00etara eta arratsaldean 16:30etik 17:30era.

Iñaki Ugalde

Ibilaldi neurtua herrian zehar

Gipuzkoako Eskolarteko Jokuak 00-01 ikasturtearen barnean, datorren martxoaren 11n, orain lau urte bezala, herrian zehar prestaturiko ibilbide baten barnean ibilaldi neurtua burutuko da. Eskolarteko XIV. mendi lehiaketaren barneko proba izango da eta beste lau herriekin batera (Irun, Tolosa, Oñati eta Orío) ospatuko da.

Ibilaldia patrula sistemen bitartez antolatuko da, bakoitza gutxienez 3 eta gehienez 5 mendizaleez osaturik egon beharko duelarik. Ibilaldian Gipuzkoako ikastetxeetako ikasle guztiek parte hartu ahal izango dute. Ibilaldi neurtua denez, lasterketan ez bezala, partaideek lortu beharko duten helburua erregulartasuna izango da eta ez bizkortasuna. Jarritako denbora muga baino lehen iristen diren partaideak sailkapenetik kanpo geratuko dira. Izenemateak elkarte-antolatzailean burutu behar ziren martxoaren 8a baino lehen izen-emate orria igorritz.

Proba egunean irteera goizeko 8:30 eta 9:00 bitartean herriko enparantzatik egingo da, helmuga berriz Zubipe kiroldegian kokatua egongo da. Bost kontrol igaro beharko dira, berauek irteera, Urbizu, Lierni auzoa, San Esteban eta helmugan kokatuak

egongo dira. Parte hartzaileei gosaria Lierni auzoan banatuko zaie.

Luzera desberdineko bi ibilbide izango dira partaideek aukera ditzaten, ibilbide motzenaren iraupena 2,30 ordukoa izango da eta luzearena 3,30 ordukoa. Gosarirako ordu erdi izango dutelarik. Proba honen antolatzailea Ormaiztegiko Kirol Elkartea da, koordinatzailea berriz Gipuzkoako Mendizale Federakundea.

Jubilatuen elkarteko urteko batzar nagusia

Jubilatuen elkartean urtero bezala ohiko batzar nagusia ospatuko dute. Batzarra larunbatean, martxoak 10, elkartean bertan arratsaldeko 5etatik aurrera ospatuko da.

Batzar nagusiaren gai zerrendako gairik aipagarrienak 2000.urteko aktaren onarpena, kontuen agerpena eta zuzendaritza-batzordea berritzea dira.

Egun jubilatuen elkarteko lehendakaria Antonio Lizarralde da. Lehendakariordea Carmen Aguado eta diruzaina Juanita Barrenetxea. Aldi berean aipatu kideez gain zuzendaritza-batzordea Pablo Murua, Jose Luis Acedo, Isidoro Criado, Jose Aizpuru eta Malen Aldanondo batzor-

Erantzun baikorra odol-emaile elkarteari

Lehengo astean odol-emaileen elkarteak odol ateraketarako egin zuen deialdiari jendeak baikor erantzun ziola aditzera eman digute. Jakitera eman diguten berri honek benetan poztu gaitu, hain zuzen urte haseran adierazi genuen bezala Gipuzkoako odol ateraketak jaitsi eta ondorioz odol beharra handia baita. Beraz gure herrian ere deialdi berezi honi baikor erantzun izanak pozez betetzen gaitu. Aipatu odol ateraketan partaide izan zineten guztiek jaso ezazue guztion eskeronik beroena. Urtarrilaren 21ean ospatu zen aipatu odol ateraketan guztira 63 odol-emailek parte hartu zuten, bestetik azpimarragarria da 7 odol-emaile berri aurkeztu zirela. Hain zuzen odol-emaile berriei dagokienez errekorra izan zela jakiteak beraien ekintza benetan txalotzera eramaten gaitu.

Odol ateraketak aurrera eramateko odol-emaileen partaidetza ezinbestekoa bada ere, beste hainbat erakunde eta norbanakoen laguntza eskertu beharrean aurkitzen gara. Ormaiztegiko odol-emaileen elkarteak Euskadiko Kutxa, Murua Harategia, Deba Harategia, Iñaki Autozerbitzua, Elozegi Ardogegia, Udala eta mediku kontsultategiaren laguntza eskertu nahi du. Bestetik gogora ekarri nahi dugu Ormaiztegiko odol-emaileen elkartean herriko odol-emaileez gain gabiritarrak ere elkartekide direla. Beraz beraiei ere eskerrona bidaltzen diegu, gure herriko odol-emaileen elkarteko partaide izanez odola ematen dutelako.

dekideez osatua dago. Ospatuko duten urteko batzarren helburuetariko bat aipatu karguetatik batzuk berritzea izango da, elkartekide diren beste kide batzuez ordezkatuak izango direlarik.

Batzarraren amaieran bertaratzen direnei lunch-a eskeiniko zaie.

Haurren elikadurari buruzko hitzaldia

Guraso elkarteak, Udalaren laguntzaz, hitzaldi bat antolatu du. Hitzaldia datorren asteazkenean, martxoak 14, arratsaldeko 5etatik aurrera Herri eskolako jangelan ospatuko da. Hizlaria, Arantxa Lorenzo, dietetikan diplomatu izango da. Hitzaldiaren ardatza haurren osasunean

elikadurak duen garrantzia izango da. Arantxa Lorenzo gurasoen hainbat kezkei erantzuten saiatuko da, besteak beste, geroz eta gehiago goxoki jateak haurren osasunean izan dezakeen eragina, goxokiak zein eratako beste elikagai erakargarriak ordezkatu daitezkeen, haurtzaroan izandako elikadura ezkorrak heldutasunean izan ditzakeen ondorioak izango dira aztergai. Bertaratuek beste hainbat galdera egiteko aukera izango dutelarik.

Aitziber Murua

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



F.M. 89.2

**EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN**

Vaiven eta Korrika uztarturik

Antzerki Garaiaren barruan Vaiven taldeari dagokio oraingoan bere lanetako bat aurkezteko txanda. Martxoaren 16an, ostirala, izango da berau eta antzerki taldeak 'Lotsa gabe' antzeslana taularatuko du. Baina Korrika 12 iristear dagoen honetan Korrika kulturalako Ordiziako ekintzen artean ere txertatu beharko da aipatu ekintza hau. Euskararen aldeko lasterketa girotzeko zer hobeto antzerkia euskaraz gozatzeko parada izatea baino.

Vaiven taldeak antzestuko duen 'Lotsa gabe' lanak sexuari buruz arituko da nola-

bait. Eskenatokian, pentsatu, sentitu eta gozatu nahi duten neska-mutilak arituko dira, sexua euren buru, bihotz eta gorputzetan indarrez sartu delako. Baina asko sentitu arren gutxi dakite eta jakinmin horren aurrean hainbat galdera planteatuko dira lan osoan zehar: Nola egiten den txortan, zakilaren tamaina garrantzitsua den, zer den HIESA, birjina = martiztarra eta beste hamaika zalantza.

Aipatu bezala Vaiven taldearen 'Lotsa gabe' lana ikusteko aukera izango da martxoaren 16an Herri Antzokian. Aurretik abonurik ez



Santa Maria kaleko lanek aurrera darraite, ez batzuk nahi bezain azkar, baina aurrera. Herriguneko kalerik luzeena izaki eta bertan ibiltzen den jende andana kontutan hartuta espero bezalako zailtasunak ematen ari dira obrak. Dena den, lanak erritmo politoan doaz eta irailerako amaituta egongo direlakoan daude.

duenak 1.000 pta. ordaindu beharko ditu sarreran eta antzerkia iluntzeko 10,15ean hasiko da.

Emakumeen eguna

Emakume langilearen nazioarteko eguna pasa bada ere hainbat ekintza daude egiteko oraindik Kimetz-ekoek antolatuta. Honela, martxoaren 12an Miren Ortubairen (Arartekoaren aholkularitza juridikoa) hitzaldia izango da Barrenan arratsaldeko 5etan. 'Santitos' filma ikusteko aukera izango da baita ere martxoaren 14an Jubilatuenen arratsaldeko 5etan Eskarne Larrinaga pedagogoarekin. Hurrengo egunean kontzertua izango da Julia Leonekin (el

legado sefardi), Barrenan arratsaldeko 7etan. Amaitzeko martxoaren 16an afaria izango da. Gogoratu Kimetzekoek VII. Literatura Lehiaketa martxan jarrita dutela baita ere.

Edadetuak martxan

San Jose eguna gertu dagoela eta makina bat ekintza antolatu dituzte oraingoan ere Jubilatuen Elkarte eta Zaharren egoitzakoek. Egun handia martxoaren 19an ospatuko badute ere, aurretik hor dabilta jo eta su hainbat lehiaketetan: musean, tutean, punttu jokoa, dominoan, tokan...

Elkartearteko musa Boxing-en

XXII. Elkartearteko mus txapelketa hastear dago. Aurten goan antolaketa lanak Boxing Elkarteari dagozkio eta aipatu elkartean bilduko dira urtean zehar herriko 8 Elkartetan jotakutako txapelketetan onenak izan diren bi bikoteak. Elkarteko bakoitzak bina bikote ordezkari izango ditu. Ligaxka lau erregetara jokatu ondoren bi multzoetako lehenek elkartean aurka aritu beharko dute martxoaren 23an jokatu den finalean.

Aitor Calvillo



Oianguren institutuan aldaketak

Itxura aldetiko aldaketak oraingoan. Izan ere, azken urteetan Urdaneta-Oianguren ikastetxean izandako ikasle kopuruaren igoera dela eta txiki geratu da bigarren hezkuntza egin nahi dutenentzat orain arte dagoen eraikina. Gauzak honela, berrikuntza eta zabalkunde nabarmenak jasango ditu institutuak, orain gimnasioa dena botaz eta honen tokian beste bloke bat erantsiaz aurreko eraikinari.

Gauzak ondo joanez gero datorren ikasturte hasierarako eraikin berria inauguratzeko moduan egongo delakoan daude Urdaneta-Oiangurengoak eta lanok 262 milioiko aurrekontua dute. Behin gela berriak eginda ikastetxeak hezkuntza eskaintzetan hobetzeko aukera izango du. Aurrera begira ere proiektu garrantzitsuak dituzte, hala nola goi hezkuntzako bi arlo.

Iñaki Dubreuil-en kontrako atentatua

PSE-EE alderdiko Udaleko zinegotzia den Iñaki Dubreuil -en aurkako atentatua izan zen joaneko otsailaren 22an. Lanera zihoala kotxe bonbat batek eztanda egin eta larriki zauritua izan zen zinegotzi sozialista. Ustez ETak egindako atentatuan bi langile hil ziren eta beste hainbat zauritu. Honen berri zabalagoa 4. orrialdean daukazue.



Euro txanponaren kanpaina informatiboa

Apirilaren 2tik 8ra Euro aste antolatuko da. Horretarako Zegamako Udalak, gai honetan aditua den Garbiñe Saizarren laguntza du. Aste horretan zehar Zegamako dendetan Euro txanpona erabili ahal izango dugu eta era horretara datorren urterako idea bat egin. Jakin 2002ko urtarilaren 1etik aurrera Kuxa eta Bankuek ere dirua Eurotan emango digutela eta lehen bait lehen txanpon hau ezagutzea guztioi ongi etorriko zaigula.

Ostatua, lehiaketa bidean

2000ko apirilaren 3an Ostatu ustiapena Maite Albisu Agirrerri esleitzea erabaki zuen Udalbatzak. Guztion dakigun arazo pertsonalak eraginda Maite Albisuk aipatutako ustiapenari amaiera emateko eskatu zuen eta eskaera hori aintzakotzat hartu ondoren Udalbatzak otsailaren 19an erabaki zuen Maite Albisuri egindako esleipena bertan behera uztea, nahiz eta bere ordezkioa izendatu arte Ostatuarekin jarraituko duen.

Baldintza Plegu berriak Udalak jadanik onartuak dituelarik, interesatuta zauden guztiok informazio gehiago nahi baduzue jo ezazue Udaltxera.

Osakidetzaren oharra

Larunbatetako larrialdi zerbitzua Beasaingo anbulategian, goizeko 9etatik 14:00tara egongo da. Behin 14:00tatik aurrera, larrialdi zerbitzuan PACen, Beasainen bertan egongo da.

Pediatría zerbitzuarekin ere gauza bera gertatuko da.

Oporraldiak 2001-2002

Imersok urtero antolatzen duen Adinekoentzako Oporraldi Programa zabaldu dela jakinarazten da. Programa honetan parte ahal izateko baldintza hauetxek bete behar dira: 65 urte beteak izatea; Pentsioen Sistema Publikoko jubilatua izatea; sistema publikoan sartzen diren pentsioen barruan, 60 urte beteak izatea.

Ekarri beharreko dokumentazioa: N.A.(DNI), Pentsioaren agiria, Gizarte Segurtasunaren zenbakia

Eskaerak betetzeko epea martxoaren 31n bukatuko da.

Hala ere, jakinarazten da, aurreko urteetan eskaera egin zutenei, Imersok norberari etxera bidali diola eskaera orria eta eskatzeko epea otsailaren 28rartekoa zutela, beraz, kanpaina honetan ez dute parte hartu behar.

Intxaustiko industrialdea martxan

Industrialdea eremuan erosteko zegoen azkeneko lursaila erosi da. Lursail hau Goikoetxealde baserriari zegokiona zen. Salneurria 48.000.000 pezetako izan da. Azpimarratu behar da Industrialderako lur zatia saldu duten guztiei m²ko, prezio berdina aplikatu zaiela.

Industrialdea martxan jartzeko eta jardunbide legala jarraitu ondoren, ezinbestekoak diren esleipenak egin dira jandak.

Eremu guztiko urbanizazioa "Hijos de JC Mendiola SA" enpresari adjudikatu zaio 225.000.000 pezetan (BEZ barne). Exekuzio epea 12 hilabetetan finkatu da.

Pabilioi industrialen proiektua idazteko lana eta ondoren gozatu zuzendaritza Xabier Yeregi Aramendi arkitektoari esleitu zaio 18.303.561 pezetan (BEZ barne)

Udalak, 2001eko otsailaren 19ko Udal Gobernu Batzordean erabaki zuen Intxaustiko industrialdeko lur mugimenduekin hasteko baimena ematea. Obren hasiera martxoaren lehen egunetarako aurrikusita dago.

Udalak, 2001eko otsailaren 19an egindako Udal Gobernu Batzordean erabaki zuen urbanizazio lanen obra zuzendari-tza "Sestra SA" enpresari 6.895.341 pezetan (BEZ barne) esleitzea.

Opor kanpaina honetan parte hartu ahal izateko, beti bezela, Udalean Gizarte Zerbitzu Departamentuan, astelehen eta asteartetan goizeko 8:30etatik 13:30tara eskaerak egin ahal izango dira.

Logotipo lehiaketa

Gazte Herexa Elkartek logotipo lehiaketa bat antolatu du. Bertan parte hartu nahi duenak oinarri hauek bete beharko ditu:

- Logotipoa ez da inondik kopiatua izan behar.
- Edozein bitarteko erabili ahal izango da (ordenagailua...)
- Logotipoaren neurria norbere esku geratzen da.
- Derrigorrezkoa da logotipoan Z.G.H. (Zegamako Gazte Herexa) zeinuak edota

izen osoa agertzea.

- Epea: apirilaren 8an amaitzen da. Kultur Etxera bidali behar dira lanak Gazte Herexaren izenean.
- Saria: lau lagunentzako afaria Goierriko sagardotegi batetan.

Garizumako hitzaldiak San Martin parrokan

Martxoaren 12, 13, 14 eta 15ean euskaraz, 16an gaztelaraz, 20:00etan. Gaia: bakegintza: 'Bakea edukia eta oinarriak'; 'Guztion artean'. Elkarriketa; 'Guztion alde'. Biziaren errespetoa; 'Jarrera iraunkorra'. Irizpide eta jarrerak. Hizlaria: Iñaki Beris-tain, Arantzazuko frailea.

Eduarne Albizu



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
943 88 87 02
BEASAIN

GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutzara bidali



Dioni Galparsoro Caja Ruraleko txirrindularia: CajaCantabria eta Laudioko sariak ataundarrarentzat



Estreinaldi bikaina inolaz ere Dioni Galparsoro txirrindulariak denboraldiari asteburu honetan eman diona. Bi egu-

netan jarraian CajaCantabria eta Torneo Euskaldun delakoari hasiera eman zion Laudio Saria irabazi baititu.

Argazki lehiaketa 2001

Ataungo Udalak antolatzen duen argazki lehiaketarako deialdia zabaldu da. Lehiaketa honek Ataunek dituen bereizgarritasun zein erakargarritasunak ezagutaraztea du helburu. Aurtengo deialdian parte hartzen duten argazkiek baldintza berri bat bete beharko dute ordea. Derrigorrezkoa izango delarik argazkian ataundarrak agertzea. Aurreko urteetan bezalaxe, irabazle suertatzen den argazkiarekin eta hautatutako beste zenbaitekin postalak egingo dira.

Hiru sari izango dira. 60.000 pezetakoa lehena, 25.000 pezetakoa bigarrena eta azkenik, hirugarren saria 15.000 pezetakoa izango da.

Parte hartzeko baldintzen artean aipatu gutxienez 3 argazki eta gehienez 9 aurkez daitezkeela. Derrigorrezkoa izango da beraietan Ataun identifikatzea. Argazkiak koloretan edo txuri beltzean aurkeztu ahal izango dira baina, beti ere 18X26cm dituen argazki paperetan.

Lanak izenpetu gabe aurkeztuko dira, 24X30 cm dituen kartulina batean erantsita. Lanak aurkezteko epea abenduaren 1ean itxiko da. Beraz, argazkiak egun hori baino lehen entregatu beharko dira Udaletxean. Bestalde, epaimahaiaren erabakia abenduaren 15a baino lehen ezagutaraziko da.

Partehartzaileek Udaletxean jaso beharko dute horretarako beharrezko den fitxa eta, era berean, lehiaketari buruzko informazio zehatzagoa.

Joan den larunbatean irabazi zuen CajaCantabria saria Dionik Santanderren. Cantabrian ospatzen den afizionatu mailako proba klasikoa da hau. Caja Ruraleko txirrindulari ataundarra lasterketako 147 kilometroak egin ostean eta, azken portuan egindako erasoari esker, bakar-bakarrik iritsi zen Pereda Ibilbideko helmugara. Dirudienez, lasterketa 45 kilometro inguruan hasi zen erabakitzen, Dioni eta, honen batera 2. eta 3. postuak lortu zituzten Sorreluz eta Euba karreraren buruan jarri zirenean.

Podiumeko hiru postuak euskaldunen esku geratu zi-

ren horrela. 2. postua Cristian Sorreluz gipuzkoararentzat izan baitzen eta Lander Euba bizkaitararentzat 3. postua.

Bestalde, joan den igandearen Torneo Euskaldunari hasiera eman zion lasterketa izan zen Laudio. Eta hemen ere Dioni izan genuen garai-le, 118 kilometrotako distantzia korritu ondoren, 20 segunduko abantailaz irabazi ondoren.

Amateur mailan lau urte daramazki Dioni Galparsorok. Lehen 3 urteak Kaikun eman zituen eta azken hau Caja Ruralen. Urteaskotarako Dioni!

Agurtzane Bikuña

Kirol albisteak

Areto futboleko Gipuzkoako Txapelketan ditugun herriko 3 taldeak oso denboraldi ona egiten ari dira, bakoitza bere mailan.

Autonomia kategorian jokatzeko duen **Ataun Kirol Elkar-tea** denboraldi bikaina egiten ari da. 4. dira sailkapenean, jokaturako 18 partidutan 22 puntu lortu ostean. Taldearen lanaz gain, aipagarria da Joseba Kerejeta eta Igor Sukia entrenatzaileen lana ere.

4. postuan da baita ere, bigarren mailan jokatzeko duen **Ataun Bitor Jatetxea** taldea. Jokalari gaztez osatutako talde hau Jon Barandiaran eta Joseba Goikoetxeak entrenatzen dute.

Bestalde, nesken taldea ere oso ongi ari da Kopa Txapelketan. **Ataun Zubikoeta taldeak** Kopan jokaturako 3 partiduak irabazi baititu. Asier Etxeberria da taldearen arduradun.

Futbolaz gain, pelotaren mundutik ere badatorkigu albiste onik. **Eneko Imaz eta Jon Dorronsoro bikotea** Udaberri Txapelketako 2. faseko sailkatu baita, senior kategorian. Bestalde, aurki hasiko den Gipuzkoako Herriarteko txapelketarako herriko pelotariak animo handiz eta, fin - fin, ari omen dira astero entrenatzen.

III. margo lehiaketa nobelentzat

Martxoaren 26tik apirilaren 1era antolatu den Iparra-Hegoa astearen barne, martxoaren 31rako iragarri da pintura txapelketa. Zapatu goize-rako plazara azaldu beharko da, norberak materiala ekar- rriz. Gaia: Segurako edozein txoko edo irudi. Sariak: 1.ari 50.000 pezeta, 2.ari 35.000 eta 3.ari 20.000. Aipamen bereziarentzat 10.000. Baz- karia doan. Sari banaketa arratsalde- z egingo da kultur etxean. Lanak herriko taber- netan jarriko dira ikusgai eta salgai. Iaz 27 margolarik parte hartu zuten. Informa- zio gehiago Elorripen, 943801002 telefonon.

Lore eta landare azoka

Martxoaren 25eko Udaberri- ko Igo lore eta landareen azo- karako, talde nahiz partikular, 15en bat lagun ari dira antola- keta lanetan. Horretarako as- teazkenero elkartzen dira udaletxean.

Goizez, udaberriko loron- tzi, lorategi nahiz baratzetako lore-landareak eta arbola lan- dareak egongo dira ikusgai eta salgai. Hauetaz gain, he- rriko eta inguruko artisauak ere bai. Arratsalde- z, berriz, erromeria antolatze- kotan da- biltza. Laster kaleratuko dute egitaraua.

Txakolindegira

Elorri Kultur Elkartek Geta- riako Gaintza txakolindegira antolatu du bidaia martxoaren 16rako. Autobusa iluntzeko 7,30etan aterako da plazatik. Txakolina nola egiten den ikusi, probatu eta afaltzeko aukera izango da bertan. 25 lagunentzako lekua dago eta izenak Elorripen eman behar dira. Prezioa: 5.000 pezeta.

Martin Alustiza finalean



Belokirekin batera, martxoaren 3an, Labriten Titin III.a eta Ze- zeagari finalaurrekoa 22 eta 13 irabazi ondoren, eskuz binaka- ko final handia jokatu du Martinek. Finala, martxoaren 11n, arratsalde- z izango dute Olaizola I.a eta Goñi III.aren kontra, Atano III.a frontoian. Finalerako bidean 7 partida jo- katu dituzte, horietatik 6 irabaziz.

1993an txapela

Eskuz binakakoan txapel bakarra du irabazia Martinek. Gasteizko Ogetan, Maiz II.aren

batera 22 eta 20 irabazi zien Ti- tin III.ari eta Arretxeri. Txapel- dunorde, berriz, bi alditan gera- tu da. 1986an Tolosarekin 22 eta 14 galdu zuen Bergara eta Mar- tinikorenaren kontra Gasteizen. 1987an Galarza III.aren 22 eta 14 galdu zuen Ladutxe eta Tolo- saren aurka.

Hainbat torneo

Torneoei dagokienez mordska ditu irabaziak 1980ko uztailaren 19an 18 urterekin debuta egin zuenetik. 'Donostia Hiria' 7 al- ditan irabazi du (85, 86, 87, 89, 90, 96 eta 98an), 'San Mateo' torneo 85 eta 87an, Gas- teizko 'Blanca' 89an eta 94an, 'Zarautz hiria' 91n eta 96an, Ihauteri torneo 89an eta 96an, 'San Fermin' torneo 1990ean, 'Balmaseda' hiria 1999an, 'Gernika' hiria 2000an, 'Athle- tic' torneo 1998an eta Txapeldunen torneo 199an.

Atsedeneko finalak

Martxoaren 2an jokatu ziren jubilatuen elkarteko karta txapelketen finalak. Puntuan Eulejio Albisu eta Ximon Garaialdek, Joxe Urbizu eta Se- bastian Garaialderi irabazi zieten. Tutean, Joxe Urbizu eta Sebastian Garaialde gera- tu ziren lehenak eta Patxi Imaz eta Julian Telleria biga- rrenak. Musean ere Joxe Ur- bizuk eta Sebastian Garaial- dek irabazi zuten, 2. Eulejio Albisu eta Ximon Garaialde geratuz.

Kirol eskolarra

● **Pelota:** Martxoaren 9an, 17:00etatik aurrera Baratzen. Mutil alebinek partida bana jokatu dute, Lazkao eta Ataungoaren kontra.

● **Mendi irteera:** Martxo- aren 11n, eskualdeko ibilaldi neurtua Ormaiztegin. Irteera, 8:30ean plazatik.

● **Sokতিরাকো** fase finala izango dute Laiotz eskolako alebinek Aizarnazabalen martxoaren 17an, arratsalde- ko 4etan.

Futbola

● **Asteburuko emaitzak:** **Infantilak:** Aizkorri 3-2 Za- rautz. **Kadeteak:** Aizkorri 5- 1 Behobia. **Jubenilak:** Segu- ra 2-1 Hamaikak bat. **Prefe- rentea:** Aretxabaleta 4-0 Se- gura.

● **Asteburuan etxean:** **Pre- ferentea:** Segura-Trintxerpe, zapatuan, 17:00etan.

Joseba Telleria

Labur-labur

● **Txirrindularitza:** Mar- txoaren 10ean hasiko den txirrindulari denboraldian Agustin Agirre izango da txirrindulari herritar bakarra. Agustinek kadeteen 2. mail- lan korrituko du Iberdrola taldean.

● **San Jose kofradia:** Au- tengo kobraketa martxoaren 18an egingo da mezen au- rretik eta ondorenetan Ospi- talpean jarriko den mahaian.

● **Koruaren entsaioak** ha- siak dira Aste Santurako. Astearte eta ostegunetan 20:00etan elkartzen dira kul- tur etxean.

● **Errifak:** Txirrindulari el- kartekoek euren gastuei au- rre egiteko eta Elorrikoek Iparra-Hegoakoentzat erri- fak atera dituzte. Herriko ta- bernetan eskura daitezke.

● Martxoaren 4an, **Zuhaitz egunaren inguruan** eskola- ko neska-mutikoek 30 geri-

zondo landatu zituzten Zubi- haundi eta Ondarre artean, 5 lizarrondo Zubi-haundiko pasealeku hasieran eta 5 ge- rizondo eta 5 gaztainondo eskolen inguruan.

● **Madalenako makaldia:** Egoera txarrean zeuden ar- bolak moztu berriak dituzte. Orain, zuztar ondarrak ken- du eta 80 urdarondo landatu- ko dira ezker-eskubi. Ondo- ren argiteria berrituko da Madalenatik Jermanenerai- no.

Martxoaren 11n Itsasondon: Euskadi Openeko mountain bike saria

Euskadiko Openerako puntuagarria izango da Itsasondoko mountain bike proba. Gipuzkoan jokatu den lasterketa bakarra izango da. 100dik gora txirrindulari etorriko

dira Itsasondora, tartean, Zuhaitz Ayuso itsasondorria.

Martxoaren 11n, goizeko 9,30etan hasiko da Itsasondoko mountaun bike proba. Jubenilak, kadeteek eta emakuzkoak arituko dira lehe-

nengo, 9,30etan hasita. Gero elitekoen txanda izango da, 11,30ak aldera. 5 kilometroko ibilaldia prestatu dute itsasondorrek. Murumendi aldera antolatu da ibilbidea. Aldapatsua. Nahikoa gogorra. Helmuga udaletxe aurrean izango da.

Punta-puntako txirrindulariak espero dira Itsasondon. Zuhaitz Ayuso herritarrekin batera, Andoni Olaberria, Iñaki Lejarreta (munduko txapelduna) eta Coloma. Maila ezberdinetan 100dik gora txirrindulariren partehartzea aurreikusten da.

Antolatzaileen esanetan,

Itsasondoko Udalak eta Goiturrek laguntza handia eman diote proba hau antolatzeko.

Gipuzkoan bakarra

Euskadiko Openerako proba puntuagarria izango da Itsasondokoa. Guztira 10 lasterketa izango dira aurten eta Itsasondokoa bigarrena da, Gipuzkoan izango den lasterketa bakarra.

Aurrera begira urtero daukate proba hau antolatzeko asmoa daukate itsasondorrek. Iraila aldean, travesia herrikoia ere antolatzen dute Itsasondon.

Zuhaitz Ayuso herriko lasterketari begira

- Ziklo kros denboraldia bukatu da. Zer balorazio egiten duzu?

- Bi urtean egon naiz ziklo krosean korritu gabe eta orain zerotik hastea bezala izan da. Euskadiko txapelketa atera dut eta Gipuzkoakoan bigarrena. Munduko txapelketa-ra joan nintzen... balorazioa positiboa da.

- Orain mendiko biziklarekin hastekoa zara, errepidekoa utzita. Zergatik aukera hau?

- Beti gehiago gustatu izan zait. Baina jubenetan urte ona egin nuen eta etorkizun onena duena ere errepidekoa da. Afizionatuetan hiru urte probatu ditut. Lehenengo urtea oso ona egin nuen, Gipuzkoako txapelketa irabazi nuen. Bigarren urtean anemia harra-patu nuen eta hirugarren urtean konturatu nintzen ez neukala zereginik. Orduan ziklo krosari eta mendiko bizikletari hel-tzera erabaki dut.

- Mountain bikean lehenengo urtea duzu...

- Negu honetan Gorliz eta Muskizko lasterketetan parte hartu dut. Nahikoa esperientzia polita izan da. Aurretik jubenetan ere korritu nuen baina alde handia dago, oso ezberdina.

- Itsasondoko probarako ze itzaropen dituzu?

- Nik ahal dudana egingo dut. Nahiko aurkari gogorrak daukat, Garro, Olaberria... Hauek mendi bizikletatik bizi dira. Baina nik 8-9 ordu lan egin eta gero joan behar izaten dut entrenatzera. Aurreneko bostetan eginez gero, nahikoa meritu bada.

- Herrian bertan jarraitzaileak badituzue...

- Herrian izugarritzko giroa dugu. Euskadiko Sei Orduetan ere izugarritzko giroa jarri zuten. Hori ona da, norbere buruari ere gogorrako egiten diogu.



ITSASONDOKO EUSKADI OPENA

MARTXOA 11 9.30ETAN



Hitzaldi ziklo arrakastatsua

Aste guztian zehar 1000 lagunetik gora bildu ziren

Kalitatezko astea izan zen Beasainen, Kilometroak 2001ek antolatutakoa. Euskal kulturen pixu nabarmena duten pentsalariak hitzaldi aberatsak eman zituzten. Kilometroak 2001eko kanta ere aurkeztu zen, web orrialdearekin batera. Mila lagunetik gora bildu ziren aste guztian zehar, Usurbe Antzokian.



Andres Arizkorreta CAFek zuzendari orokorrari galdera ugari egin zizkioten ikusleek. Argazkian, Arizkorreta, galderak entzuten.

Euskal kulturen pixu nabarmena duten pentsalariak eman zituzten hitzaldiak: 'Txepetx' soziolinguista eta antropologoa, Andres Arizkorreta CAFeko zuzendari orokorra, Bernardo Atxaga idazlea eta Pedro Migel Etxenike fisikaria. Ezagutzaren gizaratean hezkuntzak eman beharko lituzkeen urratsei buruzko hausnarketa bideratu zen hitzaldietan, zeinetan gutxiengo izanik eta gure buruak gutxietsi gabe jorratu beharreko bi-deetaz aritu zirenak.

Gainera, aurreko pentsalari hauetaz gain, Bi-zi&Hitza fundazioaren aurkezpenean parte hartu zuten Mikel Agirrezkoenagak (EHUko irakaslea),

J.A. Artze poetak, Ainhoa Güemes Bizi&Hitza bideoaren egileak eta Larrañaga soziologoak.

Harreman ona

Beasaingo Ikastolaren eta gonbidatu hauen guztien artean harreman ona sortu da. Beasaingo Ikastola gertutik ezagutzeko aukera izan zuten guztiek. Bi-zi&Hitza Fundazioak esaterako, kantuaren aurkezpen egunerako bideotxo bat bidali zuen.

Etorkizuneko hezkuntza

Etorkizuneko hezkuntzaren inguruan zabal hitz egin zuten, batez ere, Andres Arizkorretak eta Pe-

dro Migel Etxenikek. Tere Irastortza Ikastolako zuzendariak adierazi digunez, hitzaldietan esandako zenbait gai Ikastolan dagoeneko martxan jarriak dituzte. Hitzaldietan ideia berriak hartu, eta

moldatzen hasteko prest azaldu dira Ikastolakoak, etorkizuneko hezkuntzari aurre hartzeko.

Kantua - web orria

Kilometroak 2001eko kantua harrera ona eduki zuen ikusleen artean. Ur da Lur taldekoek errepikatu egin behar izan zuten kanta. Luis Kamino (perkusioa) eta Izaro Garmendia (trikitilaria) laguntzaile izan zituzten Ur da Lurrekoek.

Web orrialdea ere aurkeztu zuten Argiakoek. Oraindik informaziorik gehiegirik ez dago, baina osatzen joango dira. Aurrera begira, esaterako, Kilometroetako denda ere sarean izango dugu. **G o g o r a t u :** www.kilometroak.com.



Bernardo Atxagak autografoak sinatzeko tarte hartu zuen. Argazkian, Usurbe Antzokiaren sarreran, bere liburuak sinatzen.



Andramendi. Beasaingo Ikastola, Urbialde 2 z/g. 20200 Beasain.
E-posta: beasain@ikastola.net



Tel/fax 943 88 96 17

Etxebizitzak

salgai

➔ Idiazabalen etxebizitza salgai. 70 m²koa. Berria, ekipatua, 2 logelakoa. 16.500.000 pezeta. 627869700.

➔ Legorretan etxebizitza salgai. Ganbararekin. Dena berritua. 943806404.

➔ Etxebizitza salgai Ikaztegieta. 100 m²koa. 943651353.

➔ Beasainen 90 m²ko etxebizitza eta garajea salgai. Mobleztatua eta egutera. 943884744 edo arsuaran@euskalnet.net

➔ Tolosako Zumalakarregi auzoan pisua salgai. 2 logela, sukalde-sala eta komunarekin. Igogailua dauka. 19.500.000 pezeta. 943187289. Arratsaldean deitu.

errentan

➔ Pisua alokatu edo konpartituko nuke Goierrin. 653742819. Eva.

➔ Beasain inguruko herriren batean logela bila nabil. 943 361963.

Garajeak

salgai

➔ Garajea salgai Beasainen, herri erdian. 943027947. Iluntzetan deitu.

Ibilgailuak

salgai

➔ Opel Kadett autoa salgai. Beltza. Ondo zaindua. SS-AC. Prezio interesgarria. 606061165. (Joseba).

➔ Honda VFR750 motorra salgai. Ondo zaindua. 350.000 pezeta. 943674920. 19:30etik aurrera deitu.

➔ Toyota Camry autoa salgai. Ondo zaindua. 500.000 pezeta. 943883106. 19:30etik aurrera deitu.

➔ Aprilia Racing errepideko motorra salgai. Tabi eskapearekin. 2 kasko, aseguria eta kandadua barne. 943806421.

➔ Yamaha Aerox scooterra salgai, gorri-beltza. Egoera onean. Eguerdietan deitu. 943884207.

➔ Auto-karabana saltzen da, 7 pertsonentzako. 18 urte ditu eta 500.000 pezetagatik saltzen da. Bulego orduetan deitu. 943882695.

Bestelakoak

salgai

➔ Akordioa salgai. Borsini, Convertor 3+4 ahots. Basetti, 4 mentonera, 11 erregistro eskuin eskuan, 4 erregistro ezker eskuan, bajo bikoitza. 943884302. Oroitz Maiz.

➔ Kiwi biologikoak salgai, baserritik bertatik salduak. 943161945.

➔ Errepideko Peugeot txirrindua salgai. Erabili gabea eta merke. Gauzez deitu. Joseba. 943885547.

➔ Mitsubishi Monteroren llantak salgai. Aluminiozkoak eta 15". Oso gutxi erabiliak. Prezio interesgarria. 639644314.

➔ 'Nanga Parbat (8.125 m.) saiakera baten istorioa' diapositiba emanaldia interesatzen bazaizu, 943655684 telefonora dei ezazu.

erosi

➔ Bigarren eskuko motikultorea erosiko nuke. 943883410.

➔ Apalak behar ditut, 610 x 215 milimetrokoa, burdinezko bari-llazkoa. 630476054. Txema.

Lana

eskaerak

➔ Zaldibian asteberuetarako zerbitzaria behar da. Euskalduna. Ahal dela esperientziaduna. 943880044.

➔ Pertsona bat behar da Mutiloan adineko gizonezko bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 649167831.

➔ Gabirian neska edo emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943889893.

➔ Emakume bat behar da Gaintzan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. arratsaldetan. 94388854 - 943889307.

eskaintzak

➔ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko, arratsaldeko 5ak arte. 943887337 (12:30etik 15:00era deitu)

➔ Mutila eskaintzen da edozein peoi lan egiteko, 14:30etik 18:30era. 627369821.

➔ Mutil bat eskaintzen da arratsaldetan lan egiteko, kontratua-rekin. 943 734001. 21:00etatik aurrera deitu.

Animaliak

salgai

➔ Bost urteko setter txakurra saltzen da. Oilagorretan ondo daki. Salneurri ekonomikoa. 943027139.

➔ Bi urteko pastor aleman txakurra salgai. 943161945.

opari

➔ 5 txakurkume oparituko nituzke. 639402594.

ZINEA

goieniz

GOIENIZ:

Martxoak 22, 'Haragia'
film laburra eta **'Garaje Olimpo'** 21:00etan, Usurbe Antzokian.



'Garaje Olimpo'
Marco Bechis
(Arg, Ita, Fra, 1999)

Argentinan gaude 1977an, Videlaren diktadurapean. Maria, irakasle gaztea, Buenos Airesen bizi da amarekin eta apopiloak hartzen dituzte etxean. Halako batean, militar talde batek bahituta eramango du, talde iraultzaile bateko kide izatea leporatuta, hiri-ko garaje zahar batera. Bertan, kalez jantzitako soldaduek errukirik gabe torturatzeko dituzte. Torturazailerik hauetariko bat Felix da, Mariaren etxeko apopiloa eta harekin ezkutuan maitemindua. Hau paradoxa! Olimpo garajetik bizirik ateratzeko, Mariaren itxaropen bakarra bere torturazaileraren esku dago.

BEASAIN:

'El prestigioso'
Ostirala 9: 22:15
Larunbata 10: 19:30 - 22:15
Igandea 11: 19:30 - 22:15
Astelehena 12: 19:30 - 22:15

LEGORRETA:

Martxoak 11, 'Toy story'
17:00etan, Usurbe Antzokian.

Martxoak 18, 'The water boy' 17:00etan, Usurbe Antzokian.

antzerkia

ORDIZIA:

Martxoak 16, Vaiven taldearen 'Lotsa gabe' antzezla-na, Herri Antzokian, 22:15ean. Antzerki Garaia egitarauaren barruan.

bertsoak

BEASAIN:

Martxoak 17, Goierri eta Oreretako bertsolarien arte-ko lehia Arrano Kultur El-kartean. Bertso afaria 20:30ean hasiko da. Prezioa: 1.500 pezetan.

diapositibak

BEASAIN:

Martxoak 9, 'Mc Kinley, Alaska' diapositiba emanal-dia Iñaki Dorronsoren es-kutik, Aizkorri Mendizale el-kartean, 20:00etan.

Martxoak 18, Tomas Sara-solaren 'Andeak' diapositiba emanaldia, Aizkorri Mendi-zale elkartean, 20:00etan.

musika

BEASAIN:

Martxoak 21, Tolosako musika eskolako ikasleen kontzertua, Udaletxeko ba-tzar aretoan, 18:00etan.

OLABERRIA:

Martxoak 10, Golden Ap-ple Quartet musikarien kon-tzertua, Udal pilotalekuan, 22:30ean.

ORDIZIA:

Martxoak 15, Julia Leon kontzertuan: 'El legado se-fardi', Barrenan, 19:00etan. Gitarra jolea: Iñigo Agirre; biolin jolea: Amaia Gutie-rrez; perkusioa: Andoni Zu-gasti; ahotsa: Julia Leon.

Martxoak 18, Beti Argi banda, Plaza Nagusian, 13:00etan.



MUJIKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.

KickKers

K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44
ORDIZIA

iBAti-ONDO
ARozTEGIA



Sofak,
altzari mazizoak
haritzekoak,
gerizekoak,
gaztainondoak

multisac
— SYSTEM —

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

hitzaldiak

BEASAIN:

Martxoak 15, 'Yoga, osasun mental eta fisikoa', Bharat Martin doktorearen eskutik, Udaletxeko Batzar Aretoa, 19:30ean.

LEGORRETA:

Martxoak 15, 'Gure haurra... ez digu jaten!' hitzaldia, Ugara herri ikastetxeko liburutegian, 17:00etan.

Martxoak 22, 'Zartako bat, belarrondoko bat... trauma bat?' hitzaldia, Ugara herri ikastetxeko liburutegian, 17:00etan.

ORDIZIA:

Martxoak 12, 'Emakumezkoen eskubideak, giza-kiaren eskubideak' hitzaldia, Miren Ortubairekin, Barrena, 17:00etan.

Goierriko merkatarien jardunaldiak

Merkataritzako Laguntza Teknikorako Bulegoak martxoaren 13an, arratsaldeko 3etan, Goierriko merkatariei zuzenduta, jardunaldia antolatu du, Beasaingo Udaletxeko Areto nagusian. Eusko Jaurlaritzako Merkataritza sailak 2001. urterako argitaratu dituen dirulaguntzei buruz hitz egingo da.

Izena emateko deitu 943160673 telefonora.

bestelakoak

BEASAIN:

Martxoak 14, Arrate Leunda ipuin kontalaria, Ezkiaga auzo etxeko liburutegian, 18:30ean.

Martxoak 21, Arrate Leunda ipuin kontalaria, Kultur etxeko liburutegian, 18:30ean.

ORDIZIA:

Martxoak 14, Bideoforuma: Santitos filma, Jubilatueneko bideo gelan. Eskane Larrinaga pedagogo izango da hizlaria.

erakusketak

BEASAIN:

Martxoaren 11ra arte, Mamen Arrutiren erakusketa, Usurbe Antzokian.

ORDIZIA:

Martxoaren 9tik apirilaren 6ra arte, Patxi txiki artistaren pintura eta eskultura erakusketa, Barrenan.

SEGURA:

Ekaina bitartean, Rafa Berasategiren argazki erakusketak, Atsedenen.

mendi irteerak

Beasaingo mendizaleak:

Martxoak 11: Haurren ibilaldi neurtua.

Martxoak 18: Beasain-Ojarbi-Lazkao-Beasain.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola
(Plaza Nagusia, Ordizia). 943 880628.

Martxoak 10-11: Urbizu
(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232

Martxoak 17-19: Larnaga
(Kale Nagusia, 4- Ordizia). 943 881828



Zorion Insaustiren laguntzaz

Dietetika, senda belarrak, iriodologia, homeopatia, reflexoterapia podala eta abarretan aditua

Oreka

Dietetika eta medikuntza naturala

Kale Nagusia, 8
943 88 13 37
ORDIZIA

oreka

GESTORIA BIOK


ASEGUROAK

- ✦ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✦ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA



IKASTE AKADEMIA

Joan Iturralde, 5 943 160 120
BEASAIN
ikastekakademia@latinmail.com

ERREKUPERAKETAK

- ✦ Unibertsitate-maila
- ✦ Batxilergoa
- ✦ DBH
- ✦ ...

ESKOLA LAGUNTZA

- ✦ Maila eta arlo guztietan

TAILERRAK

- ✦ Ortografia
- ✦ Irakurmena - idazmena
- ✦ Kalkulua, logika
- ✦ Testu lanketa

Orain ZERBITZU BERRIA:
IRAKASLEA zure ETXEAN!
Informa zaitez!

Elektrizidadea daramaten ari edo alanbreak ikutu

ARGI-E

Aurren-aurrenengo, aria ikutu duana aria ikutzen eztuala ipiñi behar da, baña ortarako, en
laguntzalleari bere bur

OARRA. Laguntzean, legortasuna billatu bear da beti, bas

ELEKTRIZISTAK JAKIN BEAR DUTENA

Lendabiziko motako elektrizidade-indarra: —(Alternativa deritzaiona: eun voltiotik berakoa.) (Continua deritzaiona: seireun voltiotik berakoa)— Mota ontako indarra daramaten ariak ikutzen dituala nor edo nor ikusi ezkerro, aria ikutzen eztuala ipiñi bear da berialase, baña ari ori urrutiratzeko, ez da eskuz ikutu bear ta ezta metalezko gauzaz ere.

Bigarren motako elektrizidde indarra. —(Arien artean seireun voltio baño berdingetasun guchiago duana)— Al bada, arietatik elektrizidadea kendu bear de, ta persona ere kendu arien artetik.

(A) Ari bat erori ta norbait ikutzen badu.

Aria kendu. - Persona ikutu gabe kendu bear da aria, ta makilla, egur edo zurezko gauza baten bitartez ta gauza oek legor legor daudela. Porzelana edo kristalezko oñak dituan zurezko aulki baten gañean jarri bear da laguntzallea, al baidu.

Aria ikutu duana kendu. - Aria kentzea baño errezago baldin bada ariak ikutu duan persona kentzea, ala egin bear da len esan degun guztia gogoan edukiaz. Alegiñak egin bear dira beti, arpegi, esku ta agirian daramazkigun gorputz-zatie-tan ariak ez ikutzeko.

(B) Ikutua zinzilika dagonian. - Orduan elektrizidadea kendu bear da arietatik, eta persona pean jarri kolchoi, lasto eta orrelakuak, erortzean miñik artu eztezan.

Seireun voltiotik gorako indarrak. (Ari artean). - Elektrizidadea ezin kendu al izan ezkerro, ikututakoari laguntzea beti izango da peligro aundiko lana. Len esan degun bezelako aulki baten gañean jarrita, laguntzalleak ez du aririk ikutu bear ta lurrik ere ez, ta portzelana edo kristalezko kirtendun tresnaz lan egin bear du.

Al dezuten lenena deitu sendakiñari.

GUZTIAK JAKI

I. Elektrizidade geiegi datorrenean (mozko) **ariak, elektrizidadea kentzeko egei eusteko jartzen diran tresnak** ikutuz aurren-aurrenengo, jarri persona aria ikututez urrutiratuaz; edo bestela arietatik elktzak irikiaz. Ez bat eta ez beste ez egin ltu dituanaren eskuitik eta ezkerretik, ba puska legorak iduki bear dira, ta gañer l aulki baten gañera igoaz. *Esku batekin ak*

II. Edozein eraz argi-ari bat ikutu lu lenen, fabrikara adierazi zer gertatu dan ir gehiago indarra kendu dutela jakin arte.

Ez iñori gerturatzen utzi, ta arretaz eoztezaten.

Sendakiña ekarri. Ariak ikutu dituan z lasto ta orrelakoak, erortzean miñik artu ez erazteko bearko diran gauzak (soka, esall

Indarra kendu dutenen persona aterat polliki-polliki.

SENDAKIÑA ETORRI BITAFT

Ilda dagoela uste izanda ere, elektrizidade aria ikutu duenari beti eman bear zaizkio laguntasun oek.

Lendabizi, aria ikutu duana eraman aize garbia ugari dagon toki batera, ta toki ortan ez utzi iñori sartzen, gasoari laguntzera dijoazenai izan ezik.

Gasoari arropak askatu ta alegiñak egin len-bai-len arnasa ondo artu dezan eta odola bear bezela zañetan ibilli dedin.

Bear bezela arnasa artu-erazteko, bi bide ditugu: *mingañaren sartu-etara, ta besoen ibillera.*

Mingañaren sartu-etara erabili behar da lenbizi, baña berearekin batean besoen ibillera egin al izan ezkerro, obe.

Odolaren ibillera. - Arnasa ondo artu dezan alegiñak

egiten ari diran bitartean, odola bear bezela zañetan ibilli dedin ere lana egin bear da.

Ortarako, guante, zepillu, zapi ta orrelakoekin indarrez igortzi bear da gorputza beetik gora oñetan eta iztarretan, eta noizean bein bularrean polliki jo eskuz edo zapi bustiak. Aldi batzuetan ur otza bota arpegira, ta ozpiña ta amoniako pisca bat artu-erazi asnasarekin batean, sudurrean ipiñiaz.

tan egon zen ikusgai. Horri hauetan duzuen haren moldaketa da.

Gaur egun Goierriko hainbat lantokitan ez bezala euskara hutsez idatziriko kartela jarri zuten orain dela 80 urte. Gure aurrekoek XX. mende haseran egin zutena eredu izan daiteke XXI. mende honetan.

1920ko 'Fabrika Aundi'ko seguritate kartela

Elektrizitate hariak hain ezagunak ez ziren garaian CAF-en euskara hutsezko seguritate kartela jarri zuten, elektrizitatea-rekin arazoren bat izanez gero zer egin behar zuten jakiteko.. Euskara txukunean idatzitako kartela Beasaingo Igartza jau-regian egin zen 'Errotagintza eta energia berriak' erakuske-

kutu dituanari eman bear zaion laguntasunaren

-BIDEA

men esango degun guztia gogoan eduki bear du laguntzalleak, bestela elektrizidadearen kalteak burura etorriko zaizkio

bustitasunak kalte aundia egiten du elektrizidade-lanetan

KIN BEAR DUTENA

in artutzeko dauden berunezko (plo-ke) edo jartzeko dauden giltzak eta ar-ku kutu dituanari zer egin bear zaion.- Au-tzen, eztuala, makillaz edo zapi legor ba- elektrizidadea kendu ortarako dauden gil- n al izan ezker, ariak ebaki bear dira iku- paia ortarako eskuetan larruak edo zapi- era lurra ikutzen eztala lan egin silla edo a bakarrik egin bear dira beti lan oek.

u anari zer egin bear zaion.- Alik eta an. indarra kendu dezaten, eta ez egin ezer e. egon ariak erortzen badira ere inor ikutu

na zintzilik badago, azpian jarri kolchoi, tu ez dezan, eta erortzen ezpada, jachi skallera ta orrelakoak) aukeratu.

ari-artetik, eta zintzilika badago jechi



UMEAK JAKIN BEAR DUTENA

Elektrizidadea daraman ari bat ez da ikutu bear lurrean badago ere, ikutzeak eriotza ekarri dezake-ta.

Ariak aidean indukitzeko dauden aga burni ta orrelakoetara ez igo beñiere, bertan ilda gelditzea gertatu liteke-ta. Portzelanazko ka- tillu antzeko oiek ere ez ausi bizia maite ba- dezute.




Kabi billa edo sagar, udare ta orrelakoak ar- tzeraz ez igo beñiere ar- boletara arbola oiek elektrizidadea darama- ten arietatik gertu ba- daude: bertan ilda gel- ditzea gertatu liteke.



Elektrizidade arien gañera ez alanbre soka ta orrelakorik bota. Kometa edo beste jostalluren bat nasten bazaizute elektrizidadea daramaten ari-artean ez joan jostalluaren billa; ez geigo ikutu.



Erregaritzen ari zerate- nean ez urik bota arien gañera. Gauza oek guz- tiak, eriotza errez eka- rriko dute zuen burura.



RTEAN GUK EGIN DEZAKEGUNA

I. Mingañaren sartu-etara.- Gaso dagonaren aoa iriki bear da lenbizi, ta ortzak estututa badauzka iriki erazi goi- koen eta bekoen artean beatzak, egur puska bat edo beste gauza bat sartuaz. Aoa iriki ta gero, eldu mingañari punta- tik, zapi baten bitartez, eskuiko eskuko beatz lodi ta urren- goarekin, ta ibilli mingaña aotik sartu ta atera, indarrez, ateraldi batetik urrengora beti asti berdiña artuaz, ta minutu bakoitzean guchienaz 20 aldiz egiñaz.

Sartu-etara oiek beti berdin, gelditu gabe egin bear dira ordu erdi batean, ordu betean, bi orduan, edo iruan, icharo- pena galdu gabe.

II. Besoen ibillera.- Aria ikutu duana etzanda, gora be- gira sorbaldak gora samar dituala ta aoa ondo zabalduta ja- rri bear da. Ona laguntzalleak zer egin bear duan. Etzanda dagonaren atzean jarri buru aldetik, gasoaren besoak artu ukalondoetatik ta bularraren kontra estutu; gero, luzatuaz, buru gañera eraman ta atzera len bezela jarri bularraren kontra estutuaz.

Ori bera egin bear da hogeai aldiz guchi gora bera minutu bakoitzean beti berdín, bear ainbat denboran, gasoaren ar- nas artzea bear dan eran jarri arte; ortarako, batzuetan ordu bete bear izaten da bestietan bi bear dira batzuetan iru, ta geigo ere bai.

MINGAÑAREN SARTU-ETARA



BESOEN IBILLERA (Asitzea)



BESOEN IBILLERA (Bukatzea)



Beasaindarrak

Datorren irailaren hogeita bederatzian argazki hauek egin zirela berrogeita hamar urte beteko dira. Beraz, 1951. urtean egindakoak dira. Karmentxu Gamaio utzitako argazkiak dira.

Herri batetik bestera, txandan urtero aldatuz, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak adineko andra-gizonei egiten zien omenaldian, Beasainen bildu zituen aitona-amonak eta bere laguntzaileak ikusten ditugu argazkietan.

Goiko argazkian, ezkerretik eskubialdera ikusiz, aitona-amonak hauek dira:

Goiko ilaran: Joxe Mari Ibarbia, Loinazko San Martinen Basilikako zaindaria; Joxe Joakin Olano, Zaldibian jaiotako beasaindarra; ezezaguna; Martin Joxe Peñagarikano, Zelata-berri baserriko aita jauna; ezezaguna.

Erdiko ilaran: Bernardo Elizegi, Barrendain baserriko amandrea; ezezaguna; ezezaguna; Leopoldina Castillo, Saturnino Charlesen alarguna; Martina Jauregi, Raimundo Unzuetaaren alarguna; Concepcion Asensio, Julio Perezaren alarguna; Jazinta Arsuaga, Errekarte-haundi baserriko amandrea.

Azpiko ilaran: Joxepa Garmendia, Inazio Alustizaren alarguna; Lucila Fernandez, Antonio Andresen alarguna; Joxepa Antonio Aranburu, Nekola baserriko amandrea; Katalina Aizpeolea, Isidro Gereñuren alarguna; Dominika Zubeldia, Olaberriko Zezilio-enekoa; Saturnina Rodriguez, Marcelino Arnaezen alarguna; Bernardina Pagola, Joxe Inazio Agirreren alarguna.

Aitona-amonak hauen omenaldiko ospakizunak meza nagusiarekin hasi, Musika Bandaren kontzertua plazan entzun eta jatetxe baten bazkari goxoa eginda burutu ziren. Eta oso edadekoak zirenez, toki batetik bestera joaten bakoitzari laguntzeko, herriko hainbat andereño bildu ziren; bigarren argazki honetan ikusten ditugunak hain zuzen.

Hemen ere ezkerretik eskubira ikusiz, andereño hauek dira:

Goiko ilaran: Mari Karmen Marqués, Maritxu Irastorza, Maite Ertegegi, Angelita Aranburu, Mari Nieves Alberdi, Maria Luisa Murua, Maritxu Azarola eta Encarna Marqués.

Erdiko ilaran: Tere Telleria, Maria Sabina Aranburu, Tere Artolain, Karmentxu Gamayo, Karmen Urteaga, Anita Telleria eta Arantza Osinalde.

Azpiko ilaran: Isabel Urteaga, Regina Unanua, Mari Karmen Albaina, Anttoni Gurrutxaga, Fabiola Gutierrez, Izaskun Ezkiaga eta Edurne Bastida.



Jose txo Zufiaurre

GERTU
aholkularitza

TXEKIN programarako
homologatutako erakundea

etxekin Kale Nagusia, 2
BEASAIN
Telf: 943 16 21 92




Pottoka
KAFETEGIA

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogltartekoak



HARRIA GRESAK

BAINUGINTZAKO PROFESIONALAK

jantzi
galaz
zure
bainugelak



HARRIA GRESAK

**Diseinuan beti
aintzindari**

*Bisita gaitzazu eta ezagutu
bainugintzako azken moda*

Tel.: 943 88 54 66 Faxa: 943 16 19 75

Zelaeta, 1 BEASAIN



IDIAZABALEN ETXE ADOSATUAK



- 3 logela.
- Lorategia 66/99 m².
- Kalitate goreneko materialak.
Adarra kalitatea.
- 2 kotxerentzat garaje itxia.
- Solarium, terraza.
- Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia, ... inguruan.

ETXEEN ENTREGA DATA: 2001. urteko 4. hiruhilekoan

686 414 901 - 943 450 721



INMOBILIARIA

adarra

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

FOTO ORDIZIA

ARGAZKI-DENDA

DOMINGO UNANUE,1

(GELTOKI PAREAN)

ERREBELATUA ORDUBETEAN



13 x 18

edo

10 x 15

beti **Kodak**

paper eta kimikoekin



Ertz zuriarekin edo gabe

KOPIATIK KOPIARA SISTEMA

Argazkiak handitu edo txikitu daitezke
6x9tik 20x30era ORDUBETEAN

PEGATINAK

edozein argazkirena

enkladrakerekin

500 pta

